



Arratetik mundu zabalarari begira

matrikula
ZABALIK

2018/19 EUSKARA IKASTAROAK

EUSKALDUNTZE OROKORRA

(aurrez aurrekoa edo autoikaskuntza)

XEDE BEREZIKO IKASTAROAK

(aurrez aurrekoa)

- B1, B2, C1 (EGA) eta C2 mailak
- Hizkuntza eskakizunak: IVAP, Irale, Osakidetza

aek



KANTABRIA
Jatetxea



EZKONTZAK BATAIOAK JAUNARTZEAK

www.kantabriajatetxea.com
kantabria@kantabriajatetxea.com

RESTAURANTE KANTABRIA
KANTABRIA, JATETXEA

Arrate Gaina, 4 – 279 postakutxa – 20600 EIBAR
Telf. 943 121 262

ARRATEKO AMAREN JAIK 2018

irailak 7/8/9



EIBARKO UDALA

antolatzailea:
EIBARKO UDALA

laguntzaileak:

ANDIRAO ELKARTEA, ...ETA KITTO!, BETIKUAK, EIBARKO KLUB DEPORTIBOA, KEZKA DANTZA TALDEA



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:

Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:

erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:

elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:

Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez.

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi
eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:

Karmelita Samariarrak

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.250 ale.

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto! "k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

Eskutitzak

- Eskerrik asko Mendaroko Ospitaleko Madalena lantaldeari -

Lerro hauen bitartez gure esker ona azaldu nahi diegu abuztuaren 23an hil zen Ignacio Javier Larrañaga zaintzen jardundako guztiei, bereziki Mendaroko Ospitaleko Madalena lantaldeari eta etxeko ospitalizazioan arreta eskaini zioten sendagile, erizain eta beste guztiei. Izan ere, horrelako zerbitzua ema-

ten duten profesionalak egiten duten lana oso garrantzitsua da, gehienetan horrekin konturatzen ez garen arren. Horregatik, familia osoaren izenean gure eskerrik beroena eman nahi diegu aipatutako guztiei, eskaintako arreta goxo eta lanarengatik.

Larrañaga Aranzabal familia

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MARIA.- Itsasoaren mailak izaten duen gorabehera ritmikua. Gaztelera *'mareá'*.

MARIABEHERA.- Itsasoaren maila behearenean dagoenean. *"Eguardixan da gaur mariabehera"*.

MARIAGORA.- Itsasoaren maila gorenean dagoenean. *"Handik sei ordura mariagora"*.

Kardaberak izaten duen bizar antzekoa eta askotan hegan ibiltzen dena. *"Mariagoriak hazixa daroia, bere jatorriko bedarra munduan zabaltzeko"*.

astean esanak

"Sexuen arteko desberdintasun metabolikoak ez dira kontuan hartzen lantoki gehienetan: emakumearen organismoak 3º C gehiago behar ditu. Ohikoa da emakumeak izoztuta egotea eta gizonak izerditan. Eta bulego bateko tenperaturarekin bat egiten ez duten beharginek %38an jaitsi dezakete euren produktzioa, argi baldintza txarretan lan egiten dutenek baino gehiago. Egoera horretan lan egiteak ezarriko urraketa eta mina eragin dezake, katarro-prozesu eta eztulekin batera. Badira txantxetan diotenen 24 gradukoak agureek besterik ez dutela behar, baina giza-organismoak 22tik gorakoa behar du beti"

(KERRY HOWLEY, SAIOGILEA)

"Arrisksutsua da norbait idolatratzea: jarraitzaileek, batek erantzun guztiak dituela uste dutenean, ahalegindu ere ez dira egiten. Eta guruak erratzen dira. Demokrazia liberala krisian egon daiteke, baina Erdi Aroko jendeari esanez gero osasunarendako arazo larriena azukrea dela, egoera hori paradisutzat hartuko lukete. Terrorismoa bera ere ikuskizuan da %90ean: Europan, behintzat, erleen ziztadek edo tximistek hildako gehiago eragiten dituzte. Informazioan dago gakoa, batez ere. Kontsumitzaileek ez dute ordaintzen eta kalitate eskaseko produktuak jasotzen dituzte, batzuetan eurak produktu bihurtuz. Kalitatezko autoa edo erropa ordaintzen baduzu, zergatik ez kalitatezko informazioa?"

(YUVAL HARARI, PENTSALARIA)

"Prostituzioa normalizatu nahi izatea hankasartzea da, ez delako lan bat. Ez da gauza bera erratza pasatzea eta ezezagun batek zakila sartzea. Proxenetak dira legalizatzeke premia gehien dutenak, horrela enpresari bihurtzen direlako. Legalizazioak emakumeok beste artikulu bat bihurtzen gaitu, gizonetako euren sexualitatearen kuestionatu beharrean"

(AMELIA TIGANUS, PROSTITUTA-OHIA)

"Badira emakumeak euren gorputza saltzea erabakitzen dutenak, hainbat zerbitzu eskaintzeko. Horretarako eskubidea dute eta baita modu duinenean egiteko borrokatzeko. Pertsonen trata fruta jasotzean eta nagusiak zaintzen ere ematen da"

(AMAIA LASHERAS, PROSTITUTEN LAGUNTZAILEA)

Txontako etxiak barritzeko dirulaguntzak jasotzeko betebeharrak onartu dittue

Txontan bizi diranak euren etxiak eraberritzeko Eusko Jaurlaritzaren 2'3 millioiko diru-laguntzak jasotzeko baldintzak onartu zittuan Udalbatzak oporren aurretik, uztaillaren 24an, PSE-EE, Eibarko EH-Bildu eta Irabaziren aldeko botoekin eta Eibarko EAJ-PNVren abstenziñuarekin. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza sailak emongo dabenean diru hori auzoko 17 atariren (2, 3, 5, 15, 17, 25, 27, 29, 36, 38, 40, 42, 44, 46, 48, 50, 52 zenbakixak), 221 etxebizitzaren eta hainbat lokal komertzialen eraberritze integral eraginkorrera bideratuta egongo da. Hau da, etxebizitzetarako irisgarritasuna bermatuko dabenean lanetarako (igogailluak jartzeko, arrapalak egiteko...) edota eraikiñaren isolamendua hobetzeko (fatxadak, teillatua, hegala...) erabilari biharko dabe. Diru-laguntza eskatzeko epia 2019ko abenduaren 30era arte egongo



da zabalik eta, horren harira, hillebete honetan bulegua zabalduko dau Udalak auzuan, "auzokeri diru-laguntzen inguruko informaziñua emoteko, kontratatzen dittuen obren proiektuari buruzko zalantzak argitzeko eta eskaerak zein horrerri lotutako dokumentaziñua buleguan bertan aurkezteko".



Herriko ikastetxiak kurtso barrixa hasteko prest dagoz

Beste urte batzuetan bezala, aurtien be udako oporrak aprobetxatu dittue herriko eskoletan egin biharreko konponketak egiteko. Lanik haundiña Sansaburukua izan da, ikastetxeko jolastokixa ixa osorik tapauko dabenean estalkixa eraikitzeko biharrian dihardue eta. Eskolara doiazten umiak jolasteko toki gehixagoren premiñia zekela ikusitta, jolastokixa babestuko dabenean estalkixak horretarako bidia emongo zetsela eta ekin zetsen proiektuari eta, biharren zatirik haundiña udan egin badabe be, oindiok ez dittue jaso estalkirako piezak. Edozelan be, hiru kolore izango dittuen polikarbonatoko plakak irailleko azken asterako amaittuta egotia espero dabe eta, materixala ailegau bezin laster, plakak ipiñi eta lanak amaittuko dittue.

San Andres herri ikastetxian be eraikin nagusixaren estalkixa konpontzeko biharrek egin dittue eta, horrekin batera, eskola barruko instalaziñuak be hobetu dittue, bestiak beste komunak barrizatuta. Erremate txiki batzuren faltan, ikastetxe honetako lanak amaittuzat emon dittue. Eta Urkizu herri ikastetxian egindako biharrekin, eskolako fatxada batian eguazen umedade arazuak konpondu nahi izan dittue. Izan be, fatxadako jardineretan ura piltzen zan eta, horren eragiñez, filtraziñuak zittuen.

Eskola Agendaren 4.534 ale banatuko dittue

Debegesa Garapen Agentziak hamabosgarrenez emon dau argittara ikasle agendia. Ikasturte honetarako egin dabenean agendaren ediziño barrixa datozen egunetan banatzen hasiko dira. Ikastetxien, Debabarreneko Udalen eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin editatu dittuen agendak euskeraz dagoz eta, inprimitzeko, papel eta tinta ekologikua erabilari dabe. Guztira 4.534 ale kaleratu dittue eta Debabarreneko LH1, LH2 eta Batxillergoko ikasleri (6-18 urte bittartekueri) emongo detse. Arduradunak azaldu dabenez, "Eskolako Agenda 21 programaren baitan, datozen bi ikasturtietan hondakiñen gaixa landuko dabe eskualdeko ikastetxietan, Debabarreneko Mankomunidiarekin alkarlanian. Horregaittik aurtengo agendak be gai hori izango dau ardatz eta goiburua, barriz, "Murriztu, berrerabili eta birziklatu" da. Diseiñu erakargarria dakan agendak, bestiak beste, Debabarreneko hondakiñen zikluari buruzko informaziñua eta mezu didaktikuak dakaz jasota, ilustraziño koloretsuekin lagunduta. Horrekin batera ikasliarendako erabilgarria eta praktikua be bada, zeregiñak antolatzeke, egun seiñalatuak apuntatzeko, oharrak jasotzeko... tartiak be badittualako. Eta, agendia biribiltzeko, hondakiñen gaixarekin zerikusixa daken bitxikerixak, intereseke telefonuak, arlo sozial eta ingurumenarekin lotuta daguazten naziñoarteko egunak eta beste hainbat gauza dagoz bilduta".





Hasi dittue Otaolan supermerkatu barrixa eraikitzeke biharrak

Unibersidade Laboralaren parian, Industrias Dej taillarrak betetzen eban tokixan supermerkatu barrixa zabaltzeko biharran hasi dira. Lidl kateak zabalduko daben supermerkatua 2020. urteko otsailerako zabalik egotia dago aurreikusita. Izan be, behin biharrak hasitta, obrira amaitzeko 18 hillebeteko epia izango dabe. Abuztuan eraikiña barrutik botatzen jardun dabe. Danera 3.500 metro karratuko azalera daka tokixak eta denda barrixak metro karratu horretako 1.200 inguru beteko dittuela aurreratu dabe.

Ospital barrixa azaruaz zabalduko dau Osakidetzak

Jon Darpon Jaurilaritzako Osa-sun sailburuak aurreko astian esandakuaren arabera, "urriaren amaieran edo azaruaren hasieran" jarriko dabe martxan Otaola Hiribidian kokatutako Eibarko ospital barrixa. Mediku espezialisten kontsultak, erradiologia zerbitzuak, eta ekografikak eta erresonantziak egitekuak ipiñiko dittue martxan lehelengotikan. Sailburuaren berbetan, "obra zibilla amaituta dago honezkerok" eta ekipamendurako konkursuak be kaleratu dittue.



autuan

"KINTUEN" BAZKARIXAK

1953an jaixotakuak urriaren 6xan alkartuko dira eguna jai giruan emoteko. Bazkarixa Unzaga Plaza hotelian izango da eta jua nahi dabenak 85 euro sartu biharko dittu Kutxabankeko ES88 2095 5035 0091 1802 0414 kontu korronte zenbakixan, izen-abizenak argi adierazitta (azken eguna, urriak 3). 1968xan jaixotakuak, barriz, urriaren 20xan ospatuko dabe euren jaixa, alkarrekin bazkalduta eta bestelako ekitaldixekin. Izena emon nahi dabenak 90 euro sartu biharko dittu ES57 2100 1883 9101 0064 7858 kontu korronte zenbakixan, izen-abizenak zihezuta. 1958. urtian jaixotakuak, bestalde, urriaren 27xan alkartuko dira eta, izena emon nahi dabenak, 80 euro sartu biharko dittu ES95 2095 5035 01 9117894721 kontu korronte zenbakixan. Eta egun horretan (27xan) alkartuko dira baita be 1959. urtian jaixotakuak, Eibarko Kasinuan alkarrekin bazkaltzeko. Izena emoteko 70 euro sartu bihar dira Banco Sabadelleko ES28 0081 4362 6200 0120 6823 kontuan, izen-abizenak azalduta.




Funeraria-Ehorztetxe
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	

Ignacio Javier Larrañaga "Kili"


abuztuaren 23an hil zen, 64 urterekin



FAMILIAREN
 IZENEAN,
ESKERRIK
 BEROENA

gure nahigabeaz lagundu diguzuen guztioi eta hileta elizkizunera joan zinetenoi.

TUTULUMENDI



IDURRE IRIONDO

Bingeneko Unibersidadetik Ingeniaritza Eskolara bisitan

Stefan Gabriel, Technische Hochschule Bingen University of Applied Sciences unibersidadeko koordinadoria Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako Eibarko atala bisitatzen egon zan uztailaren 10ian. Alemaniako Rhineland-Palatinate eskualdian dagan unibersidade horrek eta Gipuzkoako Ingeniaritza Eskoliak Erasmus+ mugikortasun hitzarmena siñatu eben aurreko ikasturtian eta, horren bittartez, GIEko ikasliak Bingeneko Unibersidadian beraien ikasketak osatzeko aukeria izango dabe eta, era berian, Bingeneko ikasliak Eibarko eskolara etortzeko aukeria izango dabe. Eibarrera egindako bisitan, Stefan Gabrielelek Energixa Barriztagarrietako Ingeniaritzako Graduko ikasketa plana gertutik ezagutzeko aukeria izan eban, baita eskolako hainbat laboratorixo ikustekua be. Eskolako irakasliak eguzki energixa fotovoltaikua, eguzki energixa termikua, energixa eolikua, energixa hidraulikua, potentzia elektronikua eta elektrizidadia edota bioenergixa arluetako irakaskuntzan erabiltzen dituen ekipuen ezaugarriak azaldu zetsazen gonbidatuari. Horrekin batera, erregai pilak eta hidrogenua ikertzeko laborategixan be egon ziran. Argazkixan, Oihana



Aristondo (GIE Eibarko koordinadoria), Stefan Gabriel (Bingeneko Unibersidadeko koordinadoria) eta Mirari Antxustegi (Eibarko mugikortasun programen koordinadoria).

Autodefentsa feminista taillarrerako izen-erotia zabalik dago

Erasuak identifikatzeko eta horrerri aurre zelan egin erakusteko asuarekin, autodefentsa taillarra antolatu dau Andretxeak, "edozeiñendako". Taillarrak 10 ordu eta erdiko iraupena izango dau eta as-teburu batian, azaruaren 3an eta 4an emongo dabe, zapatuan 10:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:30era eta domekan, barriz, 10:00etatik 13:00era. Klasiak gazteleraz emongo dittue, Portaleko dantzalekuan eta ikastaro gelan, eta formataillia Isabel Bernal izango da. Izena eroteko epia irailaren 21ian itxiko dabe eta matrikulak Andretxean eta Pegoran egin leikez. Eibarren errolatuta duguazen andrak 15 euro ordaindu biharko dittue eta gaiñontzequak, bariz, 20 euro. Informaziño gehixago nahi dabenak andretxea@eibar.eus helbidera idatzi edo 943 70 08 28 telefono zenbakira deittu biharko dau.



Igogaillua eraikitzeke biharrak motel doiaz Aldatzen

Ekaiñaren erdialdian hasi zittuen Aldatze kalia urbanizatzeke biharrak uste baiño luziago doiaz eta, hori dala eta, ezin izango dabe irailaren erdialderako kalia trafikua-rendako zabaldu, holan egittia aurreikusitta egon arren. Lanak atzeratzeko arrazoiak eta bestelakuak aztertu eta



gero, okerrik ez bada hillaren amaierarako errepidia atzera be zabaltzeko moduan egotia espero dabe. Edoze lan be, igogaillua eraikitzeke biharrak amaitzeke epia sei hillebetekua da eta, horren arabera, urte honen amaierarako igogaillua martxan egon biharko da. Bestalde, proiekturako inbersiñua 720.593 eurokua da.

Gorabehera handirik gabeko abuztua izan da


Udako oporretatik bueltan abuztuko balorazioa egiteko ordua izaten da, eta azken asteetan gure herrian zer gertatu den jakiteko Jon Kruzelaegi Udaltzainburuarekin egon gara. Jakina da abuztuan gero eta jende gehiago geratzen dela Eibarren. Herria ez da hutsik geratzen lehen gertatzen zen bezala. Hala ere, egia da jendea beste erritmo batean ibiltzen dela. "Oraindik datu guztiak biltzen ari gara, baina aurrerapen moduan esan daiteke abuztu normala izan dela. Egon dira gauzak, baina nahiko lasaia izan da", aurreratu du Kruzelaegik. Begibistakoa da abuztuan trafikoa asko gutxitzen dela eta aurten ere horrela izan da. "10 istripu zenbatu ditugu. Dena dela, kolpe txikiak izan dira".

Kalean edo tabernetan erori edo beste arrazoiengatik artatu behar izan diren pertsonak hamar izan dira, "baina hauek ere ez dira larriak izan. Batzuk bertan artatu ditugu eta besteak anbulatoriora eraman

ditugu". Etxeetan lau erorketa izan dira, horiek pertsona nagusiak izan dira eta udaltzainen laguntza behar izan dute lurretik altxatzeko. Bestetik, telealarma zerbitzua erabili duten eibartarrak hamar inguru izan dira, "eta kasu hauetan ere gu hurbiltzen gara".

Liztor asiaticoa izan da abuztuko protagonistetako bat. Guztira 18 dei jaso dituzte. "Foru Aldundiak aplikazioa bat dauka bere webgunean, eta guk hor abisua ematen dugu. Modu horretan, liztor asiaticoa aurre egiteko Aldundiak ezarri duen protokoloa martxan jartzen da. Dena dela, esan behar dugu sasoi honetan egoten diren habiak nahiko txikiak izaten direla".

Obrei dagokienez, aurten ez da aparteko lanik egin: Txantxa Zelaian eta Urkin urhoditeriak aldatzen jardun dute eta, bestetik, Aldatze inguruan igogailuaren lanekin jarraitu dute. Horretaz gain, ospitalaren inguruan egiten ari diren lanak ez dira



Jon Kruzelaegi udaltzainburua.

geldirik egon eta DEJ enpresak Otaolan izandako lokaletan supermerkatu berria eraikitzen hasi dira. Hemen ere ez dira arazoak sortu, oinezkoak pixkat desbideratu behar izan dira, "baina kaltetara bat estutzearekin nahikoa izan da".

Untzagako jubilatuen urteeria Milagro Nafarroako herrira



Untzagako Jubilauen Zentruak urteeria antolatu dabe Milagrora. Hillaren 18xan juango dira, Ego Gain autobus estaziñotik goizeko 08:00etan urtenda, eta txanguan "aperitibua" hartuko dabe Finca Montecillon, jarraixan Castejoneko Trenaren Museua bisitatuko dabe. Gero Finca Montecillora bueltatu eta han bazkalduko dabe, 14:30xetan. Biajaren prezia 27 eurokoa da.



ITZIAR ARREGI AGIRRE

(ROBERTO DELGADOREN ALARGUNA)

2018ko abuztuaren 21ean hil zen

"Zu joan zara, baina, zureganako gure maitasuna ez. Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun ilusioa eta bizipoza"

Familiaren izenean, **ESKERRIK BEROENA** gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi.



MIGUEL ZAMACOLA GANCHEGUI "MAC"

2. urteurrena (2016/VIII/6)

"ZU JOAN ZARA, BAINA ZUREGANAKO GURE MAITASUNA EZ. EZ DITUGU INOIZ AHAZTUKO IZAN DITUZUN ILUSIOA ETA BIZIPOZA"

ETXEKOAK



Herriko hotelek pozik esango diote agur udako sasoiari. Beteta egon dira. *“Eta logela gehiago izango bagenitu, bete egingo lirateke”*, esan digute hainbat hotel-establezimenduetako arduradunek. Euskal Herria ezagutzeko base moduan, oporretako ibilbidean atsedena hartzeko toki bezala edo, beste barik, Eibar ezagutzeko, mundu osoko bidaiariak jaso ditu gure herriak uda honetan.

Oporretan, Eibarrera

Joan dira *“herria zaintzen”* eibartar gutxi batzuk geratzen ziren sasoi horiek. Oporrak abuztua ez den beste hilabete batzuetan hartzen direlako, lan barik oporrik ez dagoelako edo oporrak norberaren herrian pasatzea baino hoberik ez dagoelako, Eibarko kalek ez dute indio eta bakeroen pelikuletako kale hutsak ematen abuztuan. Hori gutxi ez balitz, turistek gurean pasatu nahi dituzte atsedean egunak. Horren erakusle da uda honetan herriko hotelek jaso duten jendetza. Ia ez da ohe librerik egon eta datozen hilabetei begira joera mantenduko dela adierazi digute establezimenduetako arduradunek.

Udan hotela beteta edukitzea zer den aurretik ezagutzen zuten Unzaga Plaza hoteleko eta Sosola Baserriko arduradunek. *“Abuztua beti bezala joan da, primeran, hotela bete-beteta egon delako hilabete osoan zehar”*, adierazi digu Unzaga Plaza hoteleko Andres Guaschek. Aurreko urteetako joera jarraitu dela dio zuzendariak, *“eta logela gehiago izango bagenitu, bete egingo lirateke”*.

Lehenago Arrate Hotelaren lekukoa hartu zuen Unzaga Plazak 2012an eta urte osoan zehar ikusi daitezke bisitariak bertan. Negozioa martxan jarri eta abiaraztea ez zen erraza izan, baina emaitza bikainak ditu ho-



Luxuzko giro goxo eta lasaia aurkitu daiteke Ixuako landagune berrian.

telak gaur egun. Udako erabateko betealdia da horren erakusle garbia.

Unzaga Plazak udan jasotzen dituen bisitari gehienak Espainiatik datoz. *“Bisitarien %80a gutxi gora behera”*. 4-5 eguneko egonaldia egiten duen jendea da gehiena, *“espreski Eibarrera oporretan datozenak”*. Eibartarrak udan kanpora begira jartzen garenan, kanpoko jendea Eibarrera etortzen da. Zergatik? *“Guk ikusten ez dugun xarma daukalako”*, Guaschen ustez.

Eibarren eta inguruetan gauza interesgarriak ikusten dituzte bisitariak, *“eta xarma hori aurkitzen dute”*. Arrate da, adibidez, Guaschek ezagutzen duen bikote baten toki gustokoena. *“Arratera igo eta egunak pasatzen dituzte han jarrita. Paradisua dela esaten dute”*. Ezin da ukatu, ordea, Eibarren kokapenak duen garrantzia. *“Euskal Herriaren erdigunean gaude, toki erakargarri asko ditugu eskura eta bisitariak gauza asko ezagutu nahi dituzte autobusean denbora asko pasa gabe”*.

Arrazoiak arrazoi, kontua da Guaschek zuzentzen duen Unzaga Hotelak besoak zabalik hartzen dituela bisitariak eta horrela jarraituko du datozen hilabeteotan. *“Pozik gaude eta aurreikuspenak oso onak dira. Eibar bizirik mantendu behar da”*. Tu-

ristak oso ondo hartzen dituen herria dela uste du eta bisitariengan eragina du horrek. *“Turistak etortzea garrantzitsua da, baina garrantzitsuagoa da turistak Eibarrera berriz bueltatzen direla ikustea, eta hori gertatzen ari da”*.

Turismoari dagokionez herrian hainbat gauza hobetu daitezkeela dio Guaschek. *“40.000 bisitari inguru jasotzen ditu Unzaga Plazak urtean, jende asko da, eta gauza ona izango litzateke Eibarren turismo bulegoa irekitzea”*. Hotelean turismoa egiteko informazioa eskaintzen dela esan digu, baina turismo bulegoa edukitzea herriarentzat erakargarriagoa izango litzatekela uste du. *“Hori bai, ondo aztertu beharko litzateke, zerbakiak egin eta abar”*.

Tratu berezia Sosolan

Sosola Baserriak ia urte osoan izaten ditu beteta bere logelak, beraz, pentsa nolako mugimendua izan duen udan. *“100 logela izango bagenitu, bete egingo lirateke”*, esan digu Esther Gisasola Sosola Baserriko arduradunak. XVI. mendeko monumentu historikoa, landa-turismoko hotela da Sosola eta Eibarko gune berde eta menditsuez gozatzeko aukera ematen die bisitariari.



Untzaga Hotelak bezala, abuztuan Espainiatik etorritako bisitariak jaso ditu Sosolak batipat, *"baina urtean zehar atzerritarrek etortzen dira batez ere"*. Levante ingurutik, Gaztela-Leonetik eta Andaluziatik etorri dira gehienak, *"ezin dutelako hango beroa aguantatu"*. Zentzu horretan Euskal Herriko klimak turista hauen alde egiten du. *"Zer da eguraldi ona? Zer da txarra? Erlatiboa da. Turista hauek ez dute eguzkirik nahi. Euskal Herrira datozen turistek ez diote eguraldiari begiratzen"*, Gisasolaren ustez. Horren erakusle da, adibidez, irailean jasoko dituen bisitari batzuen kasua. *"Urtarriean egin zuten erreserba, bost axola zaie zein eguraldi egingo duen. Pentsa, datorren urterako erreserbak ditut jada"*.

Gastronomia, ingurunea eta paisaia zoragarriak dira turistak erakartzen dituzten gauza garrantzitsuenak Sosolako arduradunaren ustez. Bezeroekin tratu zuzena izaten du Gisasolak eta bisitarien asmoak jakin eta gero, Eibarren eta inguruan zer egin dezaketen gomendatzen die. *"Ibilbideak proposatzen dizkiet eta Eibarren zer aurkitu dezaketeen ere azaltzen diet"*. Gertuko tratu hori da Sosolak eskaintzen duen balio erantsia.

Bikoteak jasotzen ditu Sosolak batez ere, hori delako landa-etxe honen xedea. *"Guk lasaitasuna, isiltasuna eta kalitatea eskaintzen diegu, eta bisitariak eskertzen dute"*.



Untzaga Plaza

Argi ikusi daiteke hori internet bitartez hoteletako erreserbak egin daitezkeen webguneetan. Kritika ezin hobekak jaso ditu Sosolak eta hori da establezimenduaren kalitate ikur nagusia. *"Gurean egon diren bisitarien iritzi positiboak dira gure berme nagusia"*.

Estraineko uda

Untzaga Plaza eta Sosolakoen berbak entzunda, Eibarko turismoa osasuntsu dagoela esan daiteke, eta bolada onari heldu nahi izan diote urte honetan ateak ireki dituzten beste bi establezimenduek: Eibarrooms eta Ixua Hotelak. Kontzeptu berri bat ekarri du Eibarroomsek. Hainbat urtetako lanaren ostean ekainean ireki zuten ateak Ego-Gain kalean dagoen establezimendua. 12 logelarekin, hotel honek ez dauka harrera-lekurik eta erreserba egiterako orduan jasotzen den kode batekin sartu ahal dira bezeroak logelara.

Hotel berria izanik eta kontzeptu are berragoarekin, udako sasoiaren izango zuten erantzunaren beldur ziren hoteleko arduradunak, baina uztaileko eta abuztuko aurreikuspenak hobetu egin dituzte. *"Gure balorazioa oso ona da"*, Maialen Gisasola Eibarroomseko arduradunaren berbetan. *"4-5 egun pasatzera etorri diren 30 eta 50 urte arteko bikoteak, hori da guregana etorri diren bisitarien profila"*. Eibarrek Euskal Herrian duen kokapena aintzat hartzen dute turistek Gisasolaren iritzi, *"hemendik beste toki batzuetara mugitzen direlako turismoa egitera"*. Udan jasotako jendetzak bultzada handia eman dio ateak ireki berri dituen Eibarroomsi.

Ixua aski ezaguna da Eibartarrontzat eta kanpotik etortzen diren askorentzat, baina jatetxeak hotelari eman dio lekukoa aurtan.



Eibarrooms



Sosola

Boutique-hotela da, hain zuzen ere, Ixuan aurkitzen duguna gaur egun. Luxuzko giro goxo eta lasaia aurkituko dute bisitariak landa-gune honetan eta, udako datuak ikusita, turistek gustatu zaie Ixuan aurkitzen duten proposamen berria. *"Hotela beteta egon da egunero"*, esan digu hotela kudeatzen duen Veronica Fernandezek.

Aurreko urteetako erreferentziarik gabe, uda eskasa izango zela aurreikusten zuten. Bada, turisten erantzuna zoragarria izan da eurentzat. *"Atzerritar asko etorri da; Holanda, Frantzia eta Belgikakoak batez ere. Iragaitzaz etortzen dira, gau bateko egonaldia egitera eta bidea jarraitzera"*. Espainiatik ere bisitari asko jaso dituzte. *"3-4 gau pasa dituzte, Eibarrek duen kokapenak erakarrita. Den-denak oporretan, ez laneko kontuengatik"*. Udaz gozatzeko tokia baita Eibar turistentzat.

GREGORIO ALBERDI OSORO "GOIO"

1. urteurrena: 2017-VIII-31



"Betirako gure bihotzetan"

SENITARTEKOEN PARTEZ



Alexandra, Jon eta Asmak uda berezia bizi izan dute. Saharako ume bat hartzen duten lehen aldia izan da eibartarrantzat, eta Asmarentzat ere berria izan da esperientzia. Asma Tindufeko iheslarien esparruan bizi da, Aljerian. Bizi baldintza gogorrak dituzte han eta nazioarteko laguntzaren mende bizi dira. Bi hilabete hauetan, Asmak bezala, Saharako 100 ume inguruk beste errealitate bat bizi izan dute Euskal Herrian.

- Zer moduz zaudete Asmari 'laster arte' esan eta gero?

Asma Saharara itzuli eta hurrengo egunetan bere falta igartzen genuen esnatzen ginen. Oso pozik bueltatu zen. Izan ere, ezin da ahaztu 10 urte dituela, bi hilabete egin zituela etxetik kanpo eta bere etxera bueltatu zela. Pena sentitu dugu joan denean, baina erlatiboa da, dena ondo joanez gero datorren urtean Asma berriz etortzeko erabakia hartu dugulako. Bera pozik joan zen eta gu pozik geratu ginen, beraz, primeran!

- Bai Asmarentzat eta bai zuentzat esperientzia berria izan da. Nolako izan zen elkar ezagutu zenuten momentua?

Ezagutu aurretik bere argazki bat, amaren izena eta hainbat datu jaso genituen, baina ez gehiago. Lehenengo eguna nahiko hunkigarria izan zen, berak ez zekielako euskaraz edo gazteleraz egiten eta guk hassaniaz are gutxiago! Hassania-gaztelera hiztegia inprimatu genuen badaezpada eta gero euskarazko berba gutxi batzuekin (arraina, okela, kalera, etxera, ama, aita, lotara...) komunikatzen hasi ginen. Euskara asko ikasi du bi hilabetean, izugarria!

- Nola egokitu zen Asma hemengo bizi-modura?

Saharako umeek ia 24 orduko bidaia izaten dute handik irten eta gurekin elkartu artean, antolakuntza kontuengatik eta abar, eta nahiko gogorra izaten da eurentzat. Ekainaren 25ean ailegatu zen eta atseden pixka bat hartu eta gero kalera irten ginen. Erraldoiak, buruhandiak eta atentzioa deitzen zioten. Gauza asko zeuden kalean, eta bere adineko bi umerekin elkartu eta berehala joan zen eurekin jolastera. Asma oso irekia izan da eta ez du zailtasunik eduki jendearekin egoteko. Demaseko zortea eduki dugu berarekin.

- Eta zuek nola egokitu zarete?

Egun batetik bestera 10 urteko ume bat etxean hartu genuen, eta tira! Baina oso ondo moldatu gara.



Jon, Asma eta Alexandra irteera batean.

ALEXANDRA ARRIOLA ETA JON BARANGUAN:

“Demaseko zortea izan dugu Asmarekin”

- Nolako uda bizi izan duzue berarekin?

Lehenengo gauza izan zen gure opor egunak moldatzea Asmak behar zuen atentzioa jaso zezan. Ez genuen inolako erabakirik hartu, ez genekielako Asma nola etorriko zen, nola egokituko zen eta abar. Hemen oso ondo moldatzen zela ikusi genuenean gauzak egiten hasi ginen. Zumaian egon gara udako zati handi bat, udalekuean ibili da eta furgonetarekin Girona aldean ere izan ginen. Bestetik, osasun-azterketak ere egin dizkiote, Saharatik etortzen diren ume guztiei bezala.

- Zergatik erabaki zenuten Asma etxean jasotzea?

Saharako umeek bizi duten egoera kontuan izanda ahal den neurrian laguntzeko. Saharako egoera, Aljerian dauden errefuxiatuen kanpamenduak eta guzti horren arrazoiak ezagutzea eta laguntzeak ere pisua izan du. Laz, adibidez, Saharako ume bat ekarri zuen familia

bat ikusi genuen udan eta hor piztu zitzaigun gauza bera egiteko gogo. Esan behar dugu udan Saharako ume bat etxean jasotzeak ez daukala hain gastu handia. Karga emozionala handia da, baina diru aldetik gehiago gastatuko genuke hemendik kanpo oporretara joango bagina.

- Bi hilabete hauetan beste errealitate batean bizitzeko aukera eman diozue Asmari, baina zer eman dizue berak?

Gauza asko! Edozein egoerataro ondo moldatu da, maitasun asko eman digu eta oso gertukoa izan da. Gainera, Saharan gertatu den eta gertatzen ari denari hurbilketa egiteko balio izan digu, eta baita gure inguruko jendeari ere. Egia esan oso gustora geratu gara esperientzia honekin, beteta. Zaila da esperientzia ez errepikatzea eta Eibarko jendea animatu nahiko genuke parte hartzeko. Denbora behar da, baina diru askorik ez.

Indianokua gaztelekuko atearak berri irekita

Udako oporrei agur esan eta, Arrateko jaiak igarota, irailaren 9tik aurrera Indianokua gaztelekuko atearak berriz zabalduko dituzte, ikasturte berriarekin batera ohiko martxari heltzeko prest. Bereziki DBHko ikasleen aisialdia betetzeko asmoz orain dela 7 urte inauguratu zuten Indianokua gaztelekua astean sei egunetan zabaltzen dute: astelehenetik eguenera, 18:00etatik 20:00etara; barixakuetan, 16:30etik 21:00etara; zapatuetan, 17:00etatik 21:00etara; eta domeketan, 17:00etatik 20:30era.

Gaztelekuko begiraleekin batera gazteek eurek prestatzen dituzte jarduerak

gehienak, "euren gusto eta nahien arabera" eta antolatzen eta egiten dituzten gauza guztien berri internet bidez ematen dute, <https://eibarkogaztelekua.wordpress.com> helbidean.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta, Eibarren bezala, probintzian zehar martxan dauden 50 bat udal haurtxoko eta beste horrenbeste gaztelekuek sarean egiten dute lan. Arduradunen berbetan, "elkarlan horren asmoa gure zerbitzu publikoak aberastea eta hobetzea da, horretarako haurren zein nerabeentzat kalitatezko aisialdiaren alde lan eginez".

Oporrak atzean lagata, orain kurtso berriari ekiteko sasoian gaude eta, horren aitzakiarekin, haur eta gazteak ikasturtea eurekin batera hasateko gonbidapena egin nahi dute: "Haurtxokoetan edo gaztelekuetan parte hartu, informazioa jaso edo izena emateko interesa dutenek zuzenean euren herrian gertuen dagoen zerbitzura jo dezakete".

Eibarren, Muzategi kalean dagoen Indianokua gaztelekuak 12-17 urte bitarteko nerabei "lagunekin egoteko, euren adineko jende berria ezagutzeko



eta antolatzen diren ekintza ugariekin gozatzeko" aukera eskaintzen die. Eta hori baino pixka bat gazteagoak direnentzat, berriz, Jazinto Olabe ludoteka ipini zuten martxan orain dela urte batzuk. Horri buruzko informazio zehatza ere interneten dago eskuragarri, <https://eibarkoludoteka.wordpress.com> helbidean.



XXXXXXXXXXXX

info@gerritek.net
www.gerritek.net

SOLUZIO INFORMATIKOAK

Marka guztietako zerbitzu teknikoa eta salmenta

Neurrira egindako software-aren garapena

Gerritek
INFORMATIKA

Txaltxa-Zelai, 4-6 Tel: 943-033892

Link Juan Gisasola, 5
943 20 39 59
www.linkidiomas.com

Idiomas

MEMBER OF CAMBRIDGE ESOL CENTRE ES438

- INGELESA -
klaseak goiz eta arratsaldean

UME, GAZTE ETA HELDUENTZAT
TALDE MUGATUAK
BAKOITZARI EGOKITUA
ERREKUPERAZIOAK, ESKOLARAKO LAGUNTZA
CAMBRIDGE AZTERKETETARAKO PRESTAKETA
MAILA GUZTIAK

Cambridge English Language Assessment
Exam Preparation Centre

ALTE

Ipuruak bosturtekoa egingo du izarren artean

Eta Ligako lehen bi partiduak galdu ondoren, Realari irabazita Eibarrek hiru punturekin hartuko du atsedeneko jardunaldia. Hala ere, Mendilibarren taldeak prestakuntzarekin jarraituko du eta, horrela, gaur bertan lagunarteko partidua jokatu du Mont de Marsanen, Frantziako Liga 1-ean jokatzeko duen Toulousseren aurka 18:00etatik aurrera. Azken denboraldiko taldearekin

konparatuta, aurten zazpi aurpegi berri izango ditu: Calavera, Bigas, Sergio Alvarez, Cardona, De Blasis, Hervias, Cucurella eta Pere Milla. Bestalde, iazko denboraldi hasieran zeuden hamar jokalarik taldea laga dute: Danio Garcia kapitainarekin batera, Galvez, Capa, Lomban, Rivera, Inui, Bebe, Fran Rico, Ivan Alejo eta Yoel (hau Valladoliden lagata) ez dira gure artean izango.



1- **Dmitrovic** atezaina



2- **Calavera** atzelaria



3- **Bigas** atzelaria




4- **Ramis** atzelaria



5- **Escalante** erdilaria



6- **S. Alvarez** erdilaria



7- **Cardona** aurrelaria



8- **Pape Diop** erdilaria



9- **Enrich** aurrelaria



11- **R. Peña** atzelaria




12- **Oliveira** atzelaria



13- **Riesgo** atezaina



14- **Orellana** erdilaria



15- **Cote** atzelaria



16- **De Blasis** erdilaria



17- **Kike G** aurrelaria




18- **Hervias** erdilaria



19- **Charles** aurrelaria




20- **Cucurella** atzelaria



21- **P. Leon** erdilaria



22- **Pere Milla** erdilaria



23- **Arbilla** atzelaria



24- **Jordan** erdilaria

AURREDENBORALDIKO PARTIDUAK.-

Eibar 4 (Nano, Kike, Charles, Escalante) Tudelano 0

Eibar 2 (Kike, Jordan) Reala 3

Istanbul Basaksehir 2 Eibar 0

Hoshteim Kiel 2 Eibar 3 (Bebe, 3)

Swansea 1 Eibar 2 (Pere Milla, Enrich)

Stuttgart 2 Eibar 1 (Enrich)

Osasuna 1 Eibar 1 (Orellana)

Huesca 2 Eibar 1 (Kike)

Hoffenheim 1 Eibar 1 (Orellana)

Hoffenheim 1 Eibar 3 (Charles, 3)

LIGAKO EMAITZAK.-

Eibar 1 (Escalante) Huesca 2

Getafe 2 Eibar 0

Eibar 2 (Cardona, Charles) Reala 1

EIBARTIK PASATAKO 51 JOKALARI

1. Mailan (LaLiga) eta 2. mailan (laliga 1/2/3)

Bostekin: Reala (Oiarzabal, Raul Navas, Zurutuza, Garitano entrenatzailea eta Olabe kirol zuzendaria) eta Athletic (Markel Susaeta, Dani Garcia, Capa, Yuri eta Amorrortu kirol zuzendaria)

Hirurekin: Alaves (Borja Baston, Manu Garcia eta Sergio Fernandez kirol zuzendaria), Getafe (Ivan Alejo, Angel eta Markel Vergara) eta Alcorcon (Errasti, Elgezabal eta Eddy Silvestre)

Birekin: Leganes (Mauro Dos Santos eta Cuellar), Levante (Luna eta Morales), Valladolid (Keko eta Borja Fernandez), Cordoba (Javi Lara eta Piovacari), Deportivo (Albentosa eta Eneko Boveda), Gimnastic (Manu del Moral eta Abraham), Las Palmas (Ruiz de Galarreta eta Christian Rivera), Rayo Vallecano (Bebé eta Galvez) eta Zaragoza (Toquero eta Javi Ros)

Batekin: Betis (Inui), Celta (Juncá), Espanyol (Didac Vilá), Girona (Iraizoz), Albacete (Nestor Susaeta), Granada (Fran Rico), Malaga (Adrian), Mallorca (Lago Junior), Numancia (Dani Nieto), Osasuna (Lillo), Oviedo (Saul Berjon), Reus (Lekic), Tenerife (Nano Mesa) eta Valladolid (Yoel).

De Blasis eta Cucurella izan dira epea amaitzear taldeak egin zituen azken fitxaketak.



Emakumezkoak Iberdrola Ligara igo nahian

2. Mailan jokatzeko duen Eibar FT-ko emakumezkoen taldeak azken denboraldiko emaitzak hobetu eta goi mailara igotzeko ahalegin berria egingo du. Taldeak bederatzi jokalaria fitxatu ditu (Michi Goto, Ines Aiestaran, Cristina Cornejo, Itziar Gastearena, Leyre Fernandez, Titay Calvo, Marina Agoues, Arene Altonaga eta Sheila Elorza) eta, horrez gain, entrenatzaile berria izango du: Jordi Telletxea. Asteburu honetan hasiko dute denboraldia Getxon, igoberria den Bizkerreren aurrean. Hurrengo astean San Ignacio hartuko dute Unben. Aurrendenboraldian jokaturako zazpi partiduetan ez dute porrotik ezagutu: Bizkerreri 0-3 irabazi

ondoren, bana berdinu zuten Espanyol B-rekin eta launa Barzelona B-rekin Proneo Sports torneoa irabazteko; jarraian 2-0 nagusitu zitzaion Athletic-i eta husna berdinu zuten Leioarekin Berrizen, Rezolan Añorgari 1-3 irabazi aurretik. Azkenik, aurreko asteburuan 4-0 irabazi zion Santanderreko Racing taldeari, Idoia eta Leyreren golekin (binaka sartu zuten).



Eibar FT-k 42 peña ditu dagoeneko

ABUZTUAN EZ DIA GELDIRIK EGON EIBAR FT-KO JARRAITZAILEAK, eta beste bi peña osatu dituzte, hemendik kilometro mordora gainera. Australian Peña Eibar Sidney osatu zuen 12 lagunekoko taldeak, Haberfield herrian egoitza duena. Australian osatzen den bigarren peña da, orain dela bi urte sortutako Eibaroos-en ondotik eta logotipoan ostruka eta kangurua agertzen dira Eibar FT-ren ezkutua inguratzen. 42. peña Luxenburgon osatu zuten, Peña Bitter - Lux Branch izenarekin. Bertako presidentea 2010etik Madrilen egoitza duen Bitter peñako kidea da. Momentuz hamar kidek osatutako peña da eta bere logoan Eibar FT-ko ezkutua ordez Luxenburgokoa ipini dute. Peñakideek abuztuan jokaturako Hoffenheimen aurkako partiduan izan ziren.


Bestalde, astelehen honetan hasi zuten gaur egungo anexoari eusten dion orma botatzeko lanak eta bihar arte iraungo dute behar horiek. Inguruko trafikoa ez dute moztu, baina Santaiñes kaleko 4 eta 8 zenbakien artean autoak aparkatzeko tartea kendu egin dute.




1- Cris atezaina




3- Adriana atzelaria



4- Alaitz atzelaria




5- Olatz atzelaria




6- Ines atzelaria



7- Arene erdilaria




8- Kata erdilaria




9- I. Ibarrola aurrelaria



10- Atristain erdilaria



11- Michi Goto erdilaria



12- Aneto aurrelaria




13- Santana atezaina



15- Gantxegi atzelaria




16- Idoia aurrelaria



17- Leyre erdilaria




18- Gaste atzelaria



19- Titay erdilaria



20- Karla aurrelaria




21- Agoues erdilaria




22- Sheila erdilaria




23- Eider atezaina



24- Uxue atzelaria



25- Etxebe atzelaria



26- Nahia aurrelaria



27- Honoka erdilaria

Eibar Eskubaloia denboraldia abiatu du

Astelehen honetan hasi zituzten entrenamenduak Eibar Eskubaloia klubeko talde gehienek. Lehen taldea, bestalde, abuztuaren erdialdean abiatu zen; beraz, hainbat egun eman ditu dagoeneko lehiaketa giroan sartzeko ahaleginean. Eskubaloia eskolako taldeak (3., 4., 5. eta 6. mailakoak), bestalde, urrian jarriko dira martxan. Hasiera hori nola izango den azaltzeko eta denboraldian egingo diren ekintzak eurekin partekatzeko, zuzendaritzak hainbat bilera antolatu ditu gurasoen egiteko, guztiak 19:00etatik aurrera

lpiruako ikasgeletan egin beharrekoak: irailaren 10ean (infantil mailako neska-mutilak), 12an (kadeteak), 14an (jubenilak) eta 19an (alebinak). 19koan 5. eta 6. mailako jokalarien gurasoekin bilduko dira lehenengo eta ordu erdi geroago 3. eta 4. mailakoekin.

Gainera, iaz zabalduko bidetik jarraituta, datorren asteko domekan (hilaren 16an) Arratera igoko dute Eibar Eskubaloiko partaide guztiek, bazkide eta jarraitzaileak barne. Goizeko 10:00etan elkartuko dira Azeitango frontoian eta, behin Arratera igota,



Arrateko iazko ekitaldiaren irudia.

elkarrekin jolasean ibiliko dira eta salda txorizoarekin jateko aukera izango da. Ekintza horietarako, adin txikikoek nagusi batekin joan beharko dute.

Osorotarrak triatloiz triatloi ibili dira abuztuaren

Abuztuaren 2an Pello eta Txominek Iñaki euren aitarekin hartu zuten parte Alpe d'Huezeko triatloian, 2,2 kilometro osatuz igeri egiten, 118 bizikleta gainean eta beste 20 antxintxiketan. Handik hamar egunera, hilaren 12an, Pellok eta Txominek Mikel Lascurain izan zuten lagun olinpiar modalitateko Embruneko triatloian, hau da, kilometro eta erdi igerian, 40 kilometro bizikletan eta azken 10ak arineketan. Azkenik, abuztuaren 25ean triatloiko distantzia luzeko Espainiako txapelketa jokatu zen Pontevedran eta, lan bikaina eginez, Pellok podiumeko hirugarren postua eskuratu zuen; horretarako, 3 kilometro osatu zituen uretan, 116 gurpil gainean eta 30 antxintxiketan.



Aitor Montero berriz ere garaile

Eibarko pilotoak bigarren garaipena lortu zuen jarraian Nafarroako Los Arcoseko zirkuituan. 120 aurkari izan zituen Aitor Monterok eta, garaipen horrekin, lehen postura igo da Gaztela-Mantxako sailkapen orokorrean, lehenengoa da Master eta Master CV lehiaketan ere eta hirugarrena CV sailkapen orokorrean. Nafarroako proba horretan ez zen oso ondo irten eibartarra, baina hamabi pilotori aurreratu eta gero (guztiz ezohikoa dena) lehena izan zen helmugan.



Fernando Sotocan

Eibar Rugby hilaren 13an aurkeztuko da

Avia Eibar Rugbyk 18/19 denboraldirako osatutako talde guztiak aurkeztuko ditu datorren asteko egunean, hilaren 13an, Untzagan burutuko duen ekitaldian. Senior mailako taldeak abuztuaren 13an hasi zuen aurre-denboraldia aurpegi berri askorekin, jokalaria askok laga baitute kluba. Gaston Ibarburu eta Mauro Amor izango dira taldearen gidari beste urtebetez, oraingoan Luis Miguel Plata

laguntzarekin, azken hau lehenengo taldearen manager moduan. Eta Patsi Muller eta Augusto Vilches atzeritarrak taldean jarraituko dute, erdiko mele eta atzelari postuetan. Emakumezkoen lehen taldeak, bestalde, gero eta urrats sendoagoak ematen jarraitzen du eta, Amaieur Mayok jasotako deialdietatik aparte, Alei Cid eta Kaiane Bedones jokalariek ere parte hartu dute nazioarte mailan.



Irailaren 7an OSASUNA ETA KIROLA UZTARTZEN DITUEN leku berria zabalduko dugu Bittor Sarasketa kalean

Irailaren 10etik 14ra ATE IREKIAK

  661 06 00 24 eibarkore.com

ESKAINTZAK
Hipopresiboak
K-Strech
Yoga
Body Groove
Total Fit
Yoga
Feldenkrais
Mat Pilates

KITTONBOLIA



Kittonbolako BOLETOAK prest!

Abestiak dioen moduan oporrak joan dira. Alde batera laga ditugu otordu luzeak, siestak, itsasertzeko paseoak, arratsaldeko mantekaua, eguzkitako krema, liburu bat lasai irakurtzeko denbora... Eibartarrok, baina, badaukagu beste batzuk ez daukaten gauza bat, eta oso ona gainera: Arrate egunean lagunekin eta ezagunekin elkartzeko eta "eguneratzeko" aukera daukagu. "Zer moduz joan dira oporrak? Hasi zara lanean? Zelan familia?, Astelehenean eskolara?". Arrateko zelaia opor osteko elkargune ezinhobea da eibartar guztiontzat. Ikasurte berriari ekiteko modurik onena.

HAMABOSGARREN URTEZ ZABALDUKO DU ...eta kitto! Euskara Elkarteak **Kittonbolia** Arraten, eliza parean. Urtero bezala, goizeko 10:00etatik aurrera, nahi duenak txartelak euro batean erosi eta apalak betetzen dituzten opariak etxera eramateko aukera ederra izango du.

INOIZ BAINO SARI GEHIAGO DAUZKAGU AURTEN



Sari moduan banatzeko zerbait eman duten denda, enpresa eta erakundeen laguntzari esker era guztietako opariak banatuko ditugu aurten ere: gaztak, aforiak, txuletak, erosketa-txartelak, ardo botilak, telebista, tableta, motxilak, argazki kamera, kamisetak, erlojuak, urdaiazpikoak, lurrinak, eskola-materiala, Coliseorako sarrerak.... Eta, jakina, ...eta kitto! Euskara Elkarteak bihotzez eskertuko dizue txartela erostean emandako laguntza. Urtero bezala Kittonbolan batzen den dirua Eibarren euskararen alde beharrezan lan egiteko erabiliko dugu.

Arrate egunean opariz beteta izango dugu Kittonbolia. Euro baten truke opariarekin etxera bueltatzeko aukera zabala izango da. Eskerrik asko parte hartu duzuen denda eta enpresa guztioi!!!



ANTOLATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea

LAGUNTZAILEAK:

- ...eta kitto!
- +X- harategia
- Akara
- Ansa bitxitegia
- Aratatto
- Arregi-Dominguez arraindegia
- Artola jatetxea
- Askasibar
- Aspe
- Astelena taberna
- Atelier
- Athletic Club Fundazioa
- Avia Amaña gasolindegia
- Avia Azitain gasolindegia
- Azitain erretegia
- Azpiri jostundegia
- Azpiri saneamenduak
- Baglietto
- Baratze taberna
- Benicoba
- Burbujas y Mas
- Capi
- Closet
- Dandara
- Dirdai
- Ditare
- Domeinua.eus
- Eguren
- Eibar Eskubaloia
- Eibar Kirol Elkartea / SD Eibar

- Eibar Motor
- Eibar Rugby Taldea
- Eibar Sasoian *Maider Carrasco*
- Eibar Sasoian *Isasi Masajeak*
- Eibar Sasoian *Ane Campos*
- Eibarbus
- Eibarko Txirrindulari Elkartea
- Eibarko Udala (Kultura)



- El Canton de la Avenida



- El Corte Ingles



- El Jardin de Tulipa
- El Vestidor
- Emankor



- Eroski Eibar Hipermerkatua
- Eskarne
- Estaziño taberna
- Esther Galarza
- Farmalur
- Forchetta
- Garbibox
- Genoveva arraindegia
- Gerritek
- Gratzina
- Guby mutilak
- Guby neskak
- Gustatzen Jata
- Homme
- Hotel Unzaga Plaza
- Idoia Bergaretxe Spa
- Ibarkurutze frutadenda
- Ikusimakusi
- Industrias G. Arizaga
- Industrias Mail
- Iñaki Harategia

ESKERRIK ASKO

laguntzaile eta

parte-hartzaile guztiei!!!

- Ipur Sagardotegia
- Irritsa
- Ixua Hotela
- Itxesi
- Izadi
- Izane
- Jauregi
- Jaz Zubiaurre
- Jeronimo



- Jorge Vega
- K2
- Kantabria Jatetxea
- Kanto Gasolindegia
- Kenay estetika
- Kenko (Eneko Mallagarai)
- Kenko (Laura Alluriz)
- Kerala
- Ketesa
- Khol ileapaindegia
- Kokein
- Kontent
- Kopina
- Kresala arraindegia
- Kultu taberna
- Klaus

- Laboral Kutxa
- Lakett
- Leder
- Lolas
- Look
- Los Chicos
- Luis del Rey
- Marsi
- Mas Que Wapos
- Meka-Hotel
- Mi Casa
- Mertxe gazta eta txerriak
- Mugika harategia
- Muma
- Neure
- No Comment
- Pio Pio
- Oberena harategia
- Okeletxe



- Oroz Exclusivas S.L.
- Otegi harategia
- Pirritx eta Porrotx



- Publi-Resa
- Residence Coffe Bar
- Salaberria
- San Andres gozotegia
- Sosola baserria
- Su ta Gar
- Tiro Pichon
- Tribeka
- Twins
- Txutxufletas
- Umea
- Urdanibia
- Urkotronik



- Valenciaga
- Yraolagoitia
- Zorionak Kid's and Party
- Zubi Gain
- Zurkulu

Arrateko Amaren Jaixak 2018

Irailak 7, ARRATE BEZPERIA

- 18:00.-** TXUPINAZUA eta kanpai-errepika.
19:00.- HERRI-KIROLAK.
19:00.- TRIKI-POTEUA txosnetan.
20:30.- PSIKOKILLER banaketia.
20:45.- FLASHMOB.
21:00.- BERTSO AFARIXA: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Sebastian Lizaso eta Aitor Sarriegi. Gaijartzaillia: Jon Mikel Mujika. Kantabria jatetxian. Antolatzaillia: ... eta kitto!
21:00.- HERRI-AFARIXA.
22:30.- ROCK-KONTZERTUA, txosnen eskutik: Atom Rhumba, The Baboon Show eta DJ Elepunto.



Irailak 9, KOFRADIXA EGUNA eta basarritar jubilauren eguna

- 10:30.-** S. Aldazabal XXIII. ANTXTIXIKETALDIXA. Eibarko Klub Deportibotik urten eta Arrateraiño (Orbeko bidetik).
11:00.- MEZA NAGUSIXA bertsolarixekin eta Arrateko ezpata-dantzarixekin. Ondoren, prozesiñua Usartza Txistulari Bandak lagunduta.
12:00.- PAELLA LEHIAKETIA.
14:00.- Paella lehiaketako irabazleri SARIXAK BANATZIA.
17:30.- IDI PROBAK.

Irailak 8, ARRATE EGUNA

- 10:00.-** Azittaingo surtidoretik urten eta Arratera IGOERIA, Ama Birjiñaren pausuen bide zaharretik. Saldia, txorizua eta ardaa banatuko dittue Zesteroko iturrixan Jai Batzordiak antolatuta.
10:00.- KITTONBOLIA.
10:30.- KALEJIRIA Eibarko Usartza Txistulari taldiaren eskutik.
11:00.- MEZA Nagusixa Arrateko Santutegixan. Kezka dantza taldiak eta Usartza Udal Txistulari taldiak Arrateko Amaren EZPATA-DANTZIA egingo dabe. Ondoren, Arrateko Amaren PROZESIÑUA, Usartza Txistulari taldiak, Jainaga eta Narbaiza trikilarixak, Kezka Dantza Taldiak, bertsolarixak eta agintarixak lagunduta.
12:00.- PRESUEN ETA IHESLARIXEN eskubidien aldeko ALKARRETARATZIA.
12:30.- Kezka Dantza Taldiak eta Usartza Udal Txistulari Taldiak **ARRATEKO AMAREN DANTZAK** aurkeztuko dittue zelaixan.
13:30.- TRIKILARI ETA BERTSOLARIXAK.
17:00.- BERTSOLARIXEN SAIUA.
17:00.- Arrateko Amaren HIRU TXIRLO Sarixa. Antolatzaillia: Asola Berri alkartia.
17:30/20:30.- Bete zaitetz... baina emozioz! alkoholaren inguruko kanpaiña informatzaille eta hezitzaillia. Sasoia alkartiak (Osasun heziketa eta drogamenpekotasunen prebenziñorako alkartiak) **ALKOHOLEMIA KONTROLAK** egingo dittu.
17:30.- DANTZA SOLTE TXAPELKETIA. 10 bikote onartuko dira, aldez aurretik gonbidatuta (bost 15 urtetik gorakuak eta beste bost 15 urtetik beherakuak).
18:30/21:00.- DANTZALDIXA Mugi Panderoa taldiarekin.
23:00.- KONTZERTUA, txosnen eskutik: Anita Parker eta gero DJa.

Arrate egunaren inguruko mezak

- **EGUNEAN (ARRATE BEZPERAN):** 19:00.- Salbea San Andres parrokian, koroak lagunduta.
- **BARIXAKUAN (ARRATE EGUNEAN):** 09:30ean, 11:00etan (meza nagusia eta prozesioa), 13:00etan eta 18:00etan.
- **DOMEKAN (KOFRADIA EGUNEAN):** 11:00.- Meza nagusia Arrateko santutegian. Ondoren, prozesioa.

Telefono jakingarriak


LARRIALDIAK.– SOS Deiak: 112. Gurutze Gorria: 943222222.
DYA: 943464622. DYA anbulantziak: 943208480.
OSASUN ZENTROAK.– Larrialdiak: 943461111 /943440633.
Erdialdeko anbulategia: 943032500. Torrekuako anbulategia: 943032650. Mendaroko ospitala: 943032800.
BESTEAK.– Suhiltzaileak: 112/943202328.
Udaltzaingoa: 092 / 943708424. Ertzaintza: 943204080.
GARRAIOAK.– Untzagako taxiak: 943203071. Anbulategiko taxiak: 943201325. Eusko Trenbideak: 902543210 / 943120546.

Autobus zerbitzua

- **ARRATE BEZPERAN -irailak 7- (DOAN):** IGOTZEKO (17:00etatik 22:00etara orduero), Ego-Gainetik irtenda. JAISTEKO (17:30etik 22:30era orduero, eta goizaldean orduero 01:00etatik aurrera 08:00ak arte).
- **ARRATE EGUNEAN -irailak 8- (EURO BAT):** Igotzeko (08:30etik aurrera, bete ahala), Toribio Etxebarriatik. Egun osoan gora eta behera ibiliko dira. Jaisteko azkena 21:00etan, eta goizaldean (doan) orduero 01:00etatik aurrera 08:00ak arte.
- **DOMEKAN (irailak 9):** Igotzeko (09:00, 10:00, 11:00, 13:00 eta 18:00), domeka eta jaiegunetako ohiko orduetan.

OHARRA: Arrate bezperako autobus guztiak doan izango dira, zapatu goizaldeko autobusak lez. Arrate egun horretako autobusen prezioa, bestalde, jaitsi egin da eta 2 eurotik 1era pasatu da.

eguraldia (EUSKALMET.NET)



Hiru txirlo tiraldia

Zapatuan, arratsaldeko 17:00etan hasita, hiru txirloko Arrateko Amaren Sari Nagusia jokatu da bertako bolatokian. Tiraldian parte hartzeko 5 euro ordaindu beharko da eta sariak honakoak dira: irabazlearentzat, txapela eta jasotakoaren %30; bigarren sailkatuak jasotakoaren %20 eraman

mango du; hirugarrenak, %15; laugarrenak, %10; eta bosgarrenarentzat ustekabea izango da saria. Bolatokia estalita ez dagoenez, deskuidioan euria egiten bada, txapelketa hurrengo zapatuan, hilaren 15ean, jokatu zen Asola Berri bolatokian, orduan ere 17:00etan hasita.



Simon Aldazabal Saria

Domeka goizean, 10:30ean Klub Deportiboaren aurretik irtenda, Simon Aldazabal Sari Nagusiaren 23. edizioa jokatu da. Bost kilometro eta erdiko ibilbidea egingo dute parte-hartzaileek Orbe bidetik eta 09:30etik aurrera eman dezakete izena Deporren bertan. Arraten proba amaitzerakoan, lehenengo sailkatuek dagozkien sariak jasotzeaz aparte, beste hainbat sari ere banatuko dira helmugaratutako guztien artean. Markinan jaiotako Simon Aldazabalek Eibarko Klub Deportiboan eman zituen bere urterik onenak atleta moduan eta Elgoibarko Mugertza krosa ere bereganatu zuen. Berarena da oraindik hautsi ez den marka bat: Arratetik Agiñaspi tabernaraino jaitsi zenekoa, zortzi minutu eta erdi denborarekin.



Uda honetan Arrate inguruan ibili direnek gurean orain arte ezohikoa izan den irudia aurkitu dute parean: Krabelinetik santutegira bitarteko bidean atzera eta aurrera dabilen moja taldea, abitu eta guzti. Egunak joan egunak etorri, mojek hor jarraitzen dutela ikusita, jendearen jakinmina gero eta handiagoa da eta askoren ahotan errepikatzen den galdera hauxe da: "Zeintzuk dira moja horiek? Zer ari dira egiten Arraten?". Horrelakoentzat erantzun bila, zuzenean eurengana jo dugu eta oso gustora azaldu digute zeintzuk diren eta zergatik etorri diren Arratera.

Karmelita Samariarrek moja etxea zabalduko dute Krabelinen

Egunotan bederatzi mojak taldea dabil azken urteak itxita egon den Krabelin garbitzen eta txukuntzen. Olga Maria del Redentor ama nagusiak azaldu digunez, mojak Jesusen Bihotzaren Karmelita Samariarrek dira, Elizaren baitan ofizialki 2012. urtean sortutako erlijio-orden gazteko kideak. Ordena ez ezik, mojak ere oso gazteak direla begibistakoa da: bataz-besteko adina 34 urte ingurukoa da.

Uztailaren 4az gozotik daude mojak Arraten, euren etxe berria izango dena txukundu eta prestatzen. Krabelinekoa Karmelita Samariarrek zabaltzen duten hirugarren moja-etxea izango da. Lehen etxea Valladoliden, Valdediosen sortu zuten eta, urte gutxiko tartean eurekin bat egitera animatzen ziren mojak gero eta gehiago zirela ikusita, bigarren moja-etxea zabaldu zuten Asturiasen, Oviedon.

Eta bigarren etxe hori ere txiki geratzen ari zela ikusita, hirugarren bat zabaltzeko ideia bueltak ematen hasi ziren: "Kontuan izan behar da guk ezin dugula etxerik erosi, horretarako dirurik ez daukagulako. Beraz, aukera bakarra norbaitek lagatzea da. Nora edo norengana jo genezakeen pentsatzen hasi ginela, gutariko batzuk urtero martxoan Javierrera egiten den peregrinaziora joan ziren eta, han zeudela, Munilla gotzainarekin bat egin zuten eta, berbetan hasi zirela aprobetxatuta, gure asmoen berri eman zioten eta, erdi txantxetan erdi serio, guretzako moduko etxeren bat ez ote zuen



Ekainaren azken egunetan ailegatu ziren lehen mojak Arratera eta aurrerantzean euren etxea Krabelinen izango dute.

galdetu zioten. Hori domeka batean gertatu zen eta astelehenean Munillaren idazkariaren deia jaso nuen, beharbada guretzako moduko tokiren bat bazutela eta horri buruz berba egiteko hitzordua egin genuen. Pentsa gure harridura eta poza! Munillarekin bildu eta Arraten urteetan erabili barik zegoen etxe honen berri eman zigun. Kasualitatea, nik Arrate ezagutzen nuen, urte asko kanpoan eman ditudan arren berez Bilbo aldekoa naizelako eta, ikastetxearekin batera egiten genituen txangoetan, behin baino gehiagotan Arratera etortzen ginela ondo goratzen nuen. Eta horrela, ia pentsatzeko astirik hartu barik, hona etortzeko martxan ipini ginen eta hemen gau-

de, ahal dugun moduan Krabelin txukuntzen eta, bien bitartean, modu probisionalean santutegian dagoen abadearen etxean bizitzen".

Krabelin konpontzeko egin beharreko lana ez da txiki gero. Jatetxea eta hotela itxi zituztenetik, etxe barruan lapurrak eta okupak ibili dira eta, beraz, ailegatu berrikan barrura lehenengoz sartu zirenean aurkitu zutena "edozein ikartzeko modukoa" izan zela dio. Baina horrek ez zien ilusiorik edo lanerako gogorik kendu, ez horixe: "Uztailan igeltseroak beharrean ibili dira, baina oporrak hartu dituzte eta jaiak igaro arte ez dira berriz lanera etorriko. Horregatik, bien bitartean, guk ahal duguna egiten jarraitzen dugu".



- **tartak**
- **enkarguak**
- etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73



etxera
eramateko
janaria

Bidebarrieta, 39
943 845503

ETXEKO
JAKI DENDA

baraitze

Sare sozialetan trebeak

Arratera ez dira esku hutsik ailegatu: Agustin izeneko Valdedioseko arotzak garutze eta oholtxoak egin dizkie eta etxe berriako koltxoiak, burukoak, edredoak, ontziak eta beste hamaika gauza ekarri dituzte. Horren guztiaren berri mojek ematen dute. Izan ere, gaztetasunari lotuta beste-lako berezitasunik badute: edozein gaztek egingo lukeen moduan, internet eta sare sozialak erabiltzen dituzte euren jarduera eta bizitzaren berri munduari emateko. Facebook, Twitter, Instagram... Internetek eskaintzen dituen aukerak ondo baino hobeto aprobetxatzen dituzte eta, klausurako mojak izan arren, lehengo komentuen inguruko irudiarekin zerikusirik ez dute. Eta agian horretan datza euren arrakasta. Izan



Donostiako elizbarrutiak modu ofizialean harrera egingo die hilaren 16an, meza berezia ospatuta.

ere, azken urteetan Elizaren arazo larrienetakoa bokazio falta denean, Karmelita Samariarren ordena etenbarik handitzen jarraitzen du eta, gainera, gerturatzen zaizkien moja berriak gazteak eta oso profil anitzekoak dira: heavy metal talde bateko abeslaria, ingeniari modura beharrean ibilitakoa, boxeolari-ohia, feminista...

Arrateko taldearen arduradunarentzat gazteak eurengana gerturatzea ez da horren harrigarria: *"Gaur egungo gizartean baloreen inguruko krisia dago eta horrek hutsune handia eragiten dio jende askori. Horregatik, hutsune hori betetzeko bidea emanaz gero, benetan zentzua duen bizitza-proiektua garatzeko aukera, zoriotsu izateko ateak zabalduz gero... askok horren premian daude eta, horregatik, pozarren datozkigu"*.

Arrateko Amaren jaiak gainean ditugula, ilusio handiarekin ospatzeko irrikitan daudela esan digute eta, honezkerok, Arrateko Amaren kantua ikasi eta kantatzeko entsaiatzen ibili dira: *"Gure diru-iturri nagusia egiten ditugun gauzen salmentatik lortzen dugu. Gailetak, mermeladak, pateak, bitxiak, larruzko gauzak... horrelakoak egiten ditugu, jendeari saltzeko. Arrateko jaietan jende asko etortzen dela esan digute eta, hori aprobetxatuta, hor egongo gara gure gauzak saltzeko prest"*.

Arrateko Amaren jaiak amaitu eta hurrengo asteburuan egingo diete harrera modu ofizialean, irai-



laren 16an 12:00etan ospatuko duten meza berezian. Donostiako Elizbarrutiaren izenean ongietorria emateko, besteak beste, Munilla gotzaina etorriko dela aurreratu digute, *"baina herritar guztiak animatu nahi ditugu gurekin bat egitera"*.



**Ego Gain
Gerontologia
Zentroko
taberna**

**PINTXOAK
JANARIAK ENKARGUZ
EGUNEKO MENUA
PLATER KONBINATUAK**

...

10:00etatik 20:00etara

"TIRO PITXOI JATETXEA" ARRATE

TERRAZA EDERRA BISTA PAREGABEEKIN 943 20 88 59



**MENUA ETA KARTA AUKERAN
Astelehenetan Itxita**



EGAÑA, LIZASO, LUJANBIO eta SARRIEGIK osatuko dute bihar gaueko bertso-afaria

Arrate bezperak bertso doinuekin girtzen dira. Sebastian Lizaso eta Andoni Egañak begiak itxita igo dezakete Arratera, aurten euren 23. eta 22. aldian izango dutelako '...eta kitto! Euskara Elkarreak' Kantabria jatetxean antolatzen duen bertso-afarian. Bertsolari handi hauekin batera ibiliko da kantuan gaur egun bertsolaritzak duen izen handiena, Maialen Lujanbio. Bertsolari Txapelketa Nagusiko azken irabazlearen 10. aldian izango da Kantabriako bertso-afarian, Gregorio Larrañaga 'Mañukortak' beste. Bertsolarien zerrenda borobiltzeko Kantabrian debuta

gingo duen Aitor Sarriegi izango du. Gipuzkoako txapelduna 2011n, hiru aldiz iritsi da Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalera beasaindarra.

Izen distiratsuek osatzen dute bihar gauean egingo den bertso-afariaren karta eta martxa onean doa sarrerren salmenta. Sagar Bitza eta Kultu tabernetan salgai zeudenak agortu egin dira, baina Kantabria jatetxean oraindik badago erosteko aukera. Gainera, saldu ezean, bihar bertan Kantabrian erosi ahal izango dira oraindik.

Bertsotan hasi aurretik afaria egongo da, sabela ondo beteta animo eta poz han-

diagoarekin abesten delako. Afariko menua azken urteetako berdina izango da: entsalada mistoa, fritoak, entrekota garnizioarekin eta tarta. Afari betea eta bertso-saio bikaina izango duzue, beraz, iaiko prezioan, 32 euroren truke.

Bertsolaritzak beste dimentsio bat hartu du azken urteotan eta gazte zein helduek arreta bereziarekin bizi dute bertsolaritza gaur egun. Baita Eibarren ere. Kantabriako bertso-afariak izan duen ibilbideak ondo erakusten du eibarbarrok bertsolaritzarekiko dugun maitasuna, eta biharko saioan ikusi ahal izango da.



Baimendutako
harategia
Euskal Okela
Carnicería
autorizada

Bidebarrieta 20
Tlfno: **943 20 16 69**



ZURICH

Lejardi S.L. Aseguru Agentzia

Tel. 943 20 11 49 / Plaza Barria, 8 / Eibar

Kontzertu apartak inguru paregabeen

Arrateko zelaia maila handiko musika taldeak jaso ditu azkeneko urteetan. Euskal musikaren munduan izen eta ospe handiko taldeak, lehen pausoak indartsu ematen dituzten bandak eta eibartarron talde kuttunak etorri dira Arrateko jaietara. Aurreko urteetako maila handia izan da, baina aurtengo kartela aparta da. Atom Rhumba eta Anita Parker euskal talde handien presentzia gutxi ez bada, The Baboon Show talde suediarrek asteburua borobilduko du.

Jaixak Herrixak Herrixandako jai batzorde herrikoiak mimo handiz prestatu ohi du Arrateko jaietako egitaraua, abuztuko oporrak gozatu eta gero lagun eta ezagunak berriz elkar ikusteko festa aproposak. Egitarauari jaramon eginez gero, barixaku eta zapatu gauetan egingo diren kontzertuek ematen dute atentzia. Egun bietan 23:00etan hasiko da ikuskitzuna. Amaiera, norberaren esku.

Arrate Eguneko bezpera indartsua izan ohi da eta aurten, barixakua izanda, are gehiago. Kontzertu hirukoitza izango da Arrateko zelaian, munduan zehar euren musikaren berri eman duten hiru talde izango dira oholtzan. Hasteko, Atom Rhumba. 20 urte baino gehiagoko ibilbidea egin du talde bilbotarrak eta, zazpi urteko atsedena eta gero, disko berria kaleratu zuen urte hasieran (Cosmic Lexicon). Diskoek Atom Rhumbaren musikaz gozatzeko aukera ematen badute ere, zuzenekoetan nabarmen izan da talde rockero arrakastatsu hau. *"Gure habitat naturala da"*, esan izan dute taldekideek. Etxean bezala joko dute Arraten.

Bilbotarren zuzeneko indartsuak beste ikuskitzuna erraldoi bati utziko dio tokia. Suediako zuzeneko musika talde onenen artean jarri izan dute The Baboon Show eta Cecilia



Boström abeslari energetikoak hori berretsi nahi izango du Arraten. Punk talde suediarrek mundua konkistatu du, baina Niclas Svensson bateria-joleak elkarriketa batean esan zuen moduan, *"Euskal Herria oso berezia da"*. Suediarren musikak arrakasta lortzeko toki aproposa izan daiteke Arrate.

Eskandinaviarrek astindu ederra emango diote Arrateko zelaian, baina gaua ez da hor amaituko. Abuztuan Japonian pintxatzen ibili den DJ Elepuntok giroa dituen gaueko ordu txikiak. Ondarruko Apallu tabernan eta Kafe Antzokiak hasi zuen bere ibilbide musikala DJ Elepuntok, eta Euskal Herriko jai nagusietan eta jaialdietan (Hatortxurock, 40 minutu Rock...) pintxatu izan du.

Anita Parker Arrate Egunean

Magikoa izan ohi da gautxoriek eta goizean goiz Arratera oinez igotzen direnek elkarrekin topo egiten duten momentua. Magikoagoa izango da, ordea, Arrate Egunean gaua nagusituko denean Anita Parker taldeak eskainiko duen kontzertua. Swing doinuak ekarriko dituzte arrastearrek. Talde gaztea da, 2017an sortutakoa, baina eskarmentu handiko musikariek osatzen dute. Demaseko arrakasta izan du Anita Parkerren proposamen musikalak eta Japonia eta Korea bidean jarriko dira aste gutxi barru. Arraten bizitako gau magikoren berri eman ahal izango dute Asia aldean.

Agur esatea zaila da, baina denak du amaiera bat. Anita Parkerren kontzertua eta gero DJ batek musika jarriko du Arrate jaietako amaiera emateko, nahiz eta asteburuko erritmoen taupadak bizirik jarraituko duen Arrateko zelaian.



ketesa
BULEGO MATERIALA

Altzariak Aulkiak Manparak

Estaziño, 12 Tel. 943 12 19 73
info@ketesa.com www.ketesa.com

GATE
English School

Lorea Hernández Arizaga
Ingeles Filologian Lizentziatua

Urtzaille, 8 behea
20600 EIBAR
605 716 717

Lau hamarkada daramatzate emititzen eta etxe askotako sukaldeetan leku berezia irabazia dute jadanik. Tokiko euskeraren defendatzaile sutsua, arrakastaren gagoak gertutasuna eta apaltasuna direla uste du Bernardo Ibarra Arrate Irratiko zuzendariak. Urte guzti hauetan lan egiteko modua asko aldatu da, baina funtsean berdin jarraitzen dute, entzuleei bizipoza ematen.

BERNARDO IBARRA (Arrate Irratiko zuzendaria):

“Hasierako ilusioarekin jarraitzen dugu lanean”

- Poliziaren aginduz irratia itxita egon zen 4 urteak kontuan izan barik, 40 urte eman dituzu Arrate Irratian. Urte eta ordu asko esatari eta zuzendari bezala. Nola gogoratzen duzu zure lehen harremana irratia munduarekin?

Iurretan jaio nintzen. Txikitik Asturiase-ra joan ginen, urte t'ardi inguru, aitaren lana zela eta. Ondoren Bilbora etorri ginen bizitzera. Bilboko ambientea oso erdalduna zen. 3 emisora zeuden bakarrik onda median. FM ez zegoen. Gurasoen familiak lurretan eta Durangon bizi ziren eta, bisitan joaten ginenean, bai leku batean zein beste irratia zeukaten, holako *Telefunken* ederra, eta bertatik euskal musika, txistua eta euskera entzuten zen. Eurei beti entzuten nien Arrate Irratiaren gainean berba egiten: “Arratek esan dau”, “disko hau entzun dugu Arraten”... Beti Arrate gora eta Arrate behera. Konturatu nintzen eurentza-

ko Arrate familiako gauza bat zela. Gero Bilbon euskara ikasten hasi nintzen. Irratian garai hartan dena erdaraz entzuten zen, irratsaio bakarra zegoen euskaraz, “El evangelio comentado en vascuence”.

- Nola hasi zen zure harremana Arrate Irratiarekin?

Arrate Irratia grabatuta geditu zitzaidan eta soldadutza egiten nengoela Arratera joatea pentsatu nuen, aldizkari baterako elkarrizketa bat egiteko hango apaizari, Don Pedro Gorostidiri. Gaur egun bezala, garai hartan ere euskara oso inportantea zen niretzat, barrutik betetzen nauen zerbait izan da beti. Don Pedrori elkarrizketa egin nion sasoi hartan irratia itxita zegoen (1959an zabaldu zen eta 1964an itxi). 14 urte egon zen itxita. Don Pedrok bazeukan berriro zabalteko asmoa, baina zentzu horretan bakarrik zegoen, laguntzarik gabe. Soldadutza amaitu eta astero Arratera etortzen hasi



nintzen. Goizeko 7etan tren a Atxurin hartu, Eibarrera etorri eta gero oinez igotzen nintzen. Don Pedroren etxeko ganbaran antzinako diskoak, lehenengo kontrolak eta zintak zeuden, hautsez beteta. 1978an zabaldu genuen beste laguntzaile batzurekin batera. Orduan ere zorte txarra izan genuen, 4 hilabete eta gero polizia etorri zen Madriletik bidalita eta irratia prezintatu ziguten. Le-



Ma SALUD CASTAÑO GARCIA “SALU”

irailaren 1ean hil zen, 70 urterekin

“Zure maitasuna ez da sekula amaituko”

SENITARTEKOAK



JULIO EGIGUREN LARRAÑAGA (2016-VIII-5)

*BI URTE PASATU BADIRA ERE,
GURE BIHOTZETAN JARRAITZEN DUZU.*
ETXEKOAK



ku guztietan esaten ziguten "plan de frecuencias" delakoaren zain egon behar girela. Etorri zen, bai, baina guri ez ziguten eman. Madrilen eta Gasteizen berba onak entzuten genituen beti, baina baiezko argirik ez. Horregatik, 4 urte geroago, 1982an, gure kabuz eta baimen ofizialik gabe zabaltzea erabaki genuen. Prezintoak apurta eta lanean hasi ginen. Handik 7 urtera baimena etorri zen. Hasieran sakristian jarduten genuen, kriston meritoarekin, den-dena zuzenean egiten zen-eta. 87ra arte egon ginen horrela eta ordutik gaude hemen, elizaren ezkerrean, antenaren azpian dagoen lekoean.

- Nola lortzen du horrelako emisora batek hainbeste jenderengana iristea eta horrelako arrakasta izatea?

Niretzako gustoko lana da, eta hor dago arrakasta. Hasierako ilusioarekin jarraitzen dugu eta oso lantalde ona daukagu. Urteekin ikasi egiten duzu, martxa hartzen duzu eta azkenean normal egiten duzu, baina nik uste dut horrelako medio batean gertatutakoa eta apaltasuna oso inportanteak direla. Kasu kurioso bat gertatu zait orain dela gutxi. Markiñan pelotari izandako batek esan zidan Miamin egon zirela eta Markiñako bat ikusi zutela. "Hementxe noa Arrate Irratia entzuten" esan zien gizonak. Gaur egun, badakigu internetekin ez dagoela mugarik. Hala ere, jakina da konpententzia handia dagoela. Komunikabide bezala, Euskadi Irratia oso ona da. Gurea harekin konparatzen oso txikia da. Gu hemen 6 lagun eta udan 7 gara (2 lanaldi erdian). Mejoratzeko beti daude gauzak... baina uste dut



Berrogei urte daramatza Bernardo Ibarra Arraten "bizitzen".

"Arrate oso paraje berezia da, eta horregatik tximistorratz edo pararrayos berezia jarri dugu"

asko egiten dugula, nahiz eta oso apalak izan. Horrelako komunikabide bat defizitarioa da, laguntzak daude eta horri esker justu-justu ateratzen duzu. Orain antena margotzen ari gara eta hori sekulako gastua da. Gastuak bazter guztietatik sortzen dira. Arrate oso paraje berezia da, eta horregatik tximistorratz edo pararrayos berezia jarri dugu. Tximistaren formazioa ekiditen due-

la esan daiteke. Horrek lasaitasun handia ematen digu.

- Zeuen programazioa era askotako saioek osatzen dute, hala ere musikak berebiziko garrantzia du...

Musikak pisu handia dauka eta horretaz gain informatiboak, meza, eguraldia, Gora Bihotzak, efemerideak, elkarrizketak, euskerari buruzko saioa, herrietako kronikak, kolaborazioak... Egia esan, era askotako edukiak ditugu. Herrietako berriemalerei euren herrietako euskeran hitz egiteko eskatzen diegu, eta hemen ere langile bakoitzak bere euskera egiten du. Tokian tokiko euskeraren defendatzailea naiz.



ARRATE ZAMACOLA BESOITAGOENA

2018ko abuztuaren 7an hil zen

Familiaren izenean, ESKERRIK BEROENA
gure nahigabeen dolua erakutsi eta lagundu diguzuen guztioi.

Bere aldeko IRTEERA MEZA egingo da domekan (irailaren 9an), eguerdiko 12:00etan, San Pio elizan.



NESTOR ZUBIKARAI MARTINEZ

I. URTEURRENA: 2017-VIII-11

Inoiz ez dugu ahaztuko eskaintzen zenuen poztasuna, beti gure bihotzean.

zure familia



Zabalik dago liburutegiko irakurketa-klubetan izena emateko epea

Eibarko Juan San Martin liburutegiko irakurketa klubetarako izen-emate epea **zabalik dago**. Helduen gaztelerazko irakurketa kluba *"irakurtzea eta irakurtzen dena konpartitzea gustatzen zaien pertsonentzat oso jarduera aproposa da"*. 16 urtetik gorakoeei zuzenduta dago eta dinamizatzailea Peru Magdalena da. Saioak urrian hasiko dira, Portaleaneta hilerro egingo dituzte, martitzenetan, 19:00etatik 20:00etara. Jarduera gazteleraz izaten da, dohainik, baina behin izena emanaz saioetara etortzeko konpromisoa eskatzen da. Izen-ematea irailaren 14ra arte egongo da zabalik eta liburutegian edo emaillez egin daiteke.

"Harixa Emoten"

Bestalde, gogoratu bihar amaituko dela "Harixa Emoten" irakurketa-taldean izena emateko aukera. Euskaraz izaten diren saio hauetan idazleak bere liburua irakurri duten irakurleei haren gaineko ideiak, esperien-



tziak eta bizipenak elkartrukatzeko aukera eskaintzen die, aurrez aurreko solasaldien bitartez. Hilean behin elkartzen dira Portaleko Kulturako bilera-gelan 19:00etatik 20:00etara eta dohainik izaten da.

Karlos Linazasoro, Garazi Arrula Ruiz, Go-tzon Hermosilla eta Maixa Zugasti idazleak izango dira, besteak beste, aurten Eibarren

izango ditugun idazleak. Lehen saioa irailaren 25ean izango da eta Karlos Linazasoren "6012" liburua aztertuko dute.

Saioetara joateko konpromisoa eskatzen da behin izena emanaz gero eta solasaldian parte hartuko duen bakoitzari liburua lortzeko konpromisoa hartzen du Liburutegiak. Horretarako, alde aurretik izena eman behar da. Izena eman nahi dutenek Liburutegira jo beharko dute, edota telefonoa edo emaila erabil dezakete. 16 urtetik gorakoek har dezakete parte eta gehien jota 20 pertsona onartuko dira taldean. Aipatutako bi horiekin batera, irakurketaz familian disfrutatzen aukera ematen duten beste egitasmo batzuk ere eskaintzen dituzte liburutegian: "Liburuen poltsa" kluba, "Azalerako ipuinak", "Paperezko hegoak" irakurketa kluba... Horiei guztiei buruzko informazio zehatza interneten, www.eibar.eus/eu/ abisuak/aggregator helbidean aurkituko duzue.

Udazkenerako ikastaro eskaintza zabala UEUn

Udako Euskal Unibertsitateak prest dauka ikasturtearen lehen zatirako, **udazkenerako eskaintza**. Betiko martxan, ikastaro batzuk on line egitekoak izango dira eta beste batzuk, berriz, ikasgelan emango dituzte. Eibarren honako hauek emango dituzte: "Norbera. Argazki-autobiografia", "Ahozko komunikazioa errazteko teknikak", "Beheko gorputz-adarretako tendinopatiaren diagnostiko eta tratamendua", "PISA azterketako irakurketa probaren analisisa eta lanketa-bideak", "Ez utzi biharko gaur egin dezake-



zuna: zure produktibitatea hobetzeko metodo eta tresnak", "Egiletasuna eszenaratzeko moduak: hurbilketa bat literatur kritika feministatik", "Euskal Komunikazioaren Ekosistema aztertzen: Diziplinar-

teko Data Sprinta". Ikastaroetan izena ematea astelehenaz geroztik dago zabalik. Informazio guztia ikusteko zein matrikula egiteko www.ueu.eus helbidera jo daiteke.

Afariketan aisialdirako programa abiatzera doa

Hastear dagoen 2018/2019 ikasturtean zehar Afariketan programan parte hartu nahi duten haurrek, irailaren 17tik 23ra bitartean izena eman beharko dute. Aisialdirako egitasmoa Arrateko Andra Mari ikastetxean, San Andres eskolan, Ignazio Zuloaga Institutuan, Indianokua gaztelekuan, Urkizu ikastetxean, Sansaburun eta Tiburtzio Anitua 27ko lokalean burutzen da. Arduradunen berbetan, *"bi talde nagusi ditugu, alde batetik 2013. urtean jaiotako haurrak (5 urteko gelakoak) eta bestetik lehen hezkuntzako 1. eta 2. mailako umeak. Haur Hezkuntzako haurrek astean bi egunez izango dute zerbitzua, ordubeteko iraupenarekin, eta Lehen Hezkuntzako haurrek, berriz, astean birritan, ordu eta*



erdiko iraupenarekin. Ordutegiak izena emateko orrian kontsultatu daitezke". Aurrematrikula egiteko epea irailaren 17an hasi eta 23an itxiko da, www.astixa.eus web orrian.



155 film labur Javier Agirresarobe Sariak jasotzeko lehian

Aurten 19. edizioa beteko duen Asier Errasti film laburren jaialdira-ko lanak aurkezteko epea amaituta, antolatzaileek 155 laburmetrai jasotzeko aurreratu dute. Eibarko Udalak eta Plano Corto elkarteak antolatutako jaialdian lehiatuko diren lan horiek guztiak ikusi beharko dituzte epaimahaikideek, ondoren Javier Agirresarobe Sarietarako finalistak aukeratzeko. 20 minutu baino gutxiagoko iraupena daukaten filmen proiektzioak, berriz, azaroaren 5etik 10era izango dira, Coliseo antzokian. Oraingoan ere irabazleei banatuko dizkieten sariak aurreko edizioetako sailkapenari jarraituko diote.



Gorka Aizpuruaren kartela Donostiako Euskal Jaietan

Bartzelonan bizi den Gorka Aizpuru Serrano eibartarraren lanak irabazi zuen aurtengo udan ospatu dituzten Donostiako Euskal Jaiak iragartzeko kartel-lehiaketan. Kartela egiteko orduan, "errezeran" jo duela dio egileak. Irudian euskal jantziak soinean dituen bikote bat somatu daiteke, "jai egun bereziaz gozatzen". Bartzelonan, Eina Diseinu eta Arte unibertsitate zentruan Diseinu Grafikoan graduatu zen artista eibartarrak sari ugari irabazi ditu beste kartel-lehiaketan batzuetan ere. Azkenetakoa, XXIII. Zaragozako Zine Jaialdirako (FCZ) egindakoarengatik eman zioten uztailean.

Euskaltegietako matrikulazioa zabalik

Euskera ikasi nahi dutenentzat matrikulazioa zabalik dago Udal Euskaltegian (irailaren 26ra arte) zein AEK Euskaltegian (irailaren 28ra arte). Bietan maila guztiak eta ordutegi zabala eskaintzen dituzte eta, horrez gain, tarifa eta diru-laguntza bereziak daukate. Udal Euskaltegian izena emateko, zuzenean jo daiteke bulegora (Portalea eraikina, 2. solairua), goizez 08:30etik 14:00etara eta arratsaldean 16:30etik 19:00etara. Eta AEKn izena emateko, berriz, euskaltegira joan (Sostoa, 1), 943201379 telefonora deitu edo eibar@aek.eus helbidera idatzi.



Antzetzutako ipuin-kontaketa

Zapatuan hasiko da El Corte Inglesekoek irailerako prestatu duten aisialdi eskaintza. Arratsaldeko 17:30ean, "Paperezko zirkua" antzetzutako ipuin kontaketa egingo du Ana Apikak, 3. solairuko terrazan (doan).

Eibarko Kantuzaleak

Datorren astean, eguenean, hasiko dituzte entseguak Eibarko Kantuzaleak taldekoek. Hortik aurrera, astean behin izango dira entseguak, eguenean, 19:00etan, San Andres elizako lokaletan.

Ikasturte hasiera Musika Eskolan

Juan Bautista Gisasola Udal Musika Eskolak ikasturte berriari ekin dio. 2012., 2013. eta 2014. urteetan jaiotako ikasleek martitzenean hasi zituzten klaseak eta Aurreprestakuntza, 1A, 1B, 2A eta 2B taldekoek, berriz, irailaren 11n hasiko dituzte.

hildakoak

- **Agustina Askasibar Lauzirika.** 88 urte. 2018-VII-1.
- **Doroteo Martin Bello.** 85 urte. 2018-VII-1.
- **Dolores Marmol Cañas.** 83 urte. 2018-VII-1.
- **Emilia Moreno Baez.** 66 urte. 2018-VII-2.
- **Fernando Ruiz Pelayo.** 73 urte. 2018-VII-3.
- **Mª Angeles Brigos Gonzalez.** 91 urte. 2018-VII-3.
- **Justina Larrañaga Askasibar.** 90 urte. 2018-VII-3.
- **Eudisia Rivas Fernandez.** 92 urte. 2018-VII-6.
- **Adoracion Sevillano Gil.** 96 urte. 2018-VII-6.
- **Ascension Ruiz Iñiguez.** 97 urte. 2018-VII-6.
- **Olga Olea Mandioli.** 85 urte. 2018-VII-6.
- **Candido Maguregi Agirre.** 87 urte. 2018-VII-8.
- **Leonor Lopez Saiz.** 87 urte. 2018-VII-11.
- **Isabel Gallastegi Alzola.** 92 urte. 2018-VII-11.
- **Juan Echeto Etxebarria.** 80 urte. 2018-VII-12.
- **Julia Ruiz Santamaria.** 78 urte. 2018-VII-14.
- **Antonio Buendia Buendia.** 83 urte. 2018-VII-15.
- **Teresa Salinas Padilla.** 86 urte. 2018-VII-16.
- **Manuel Perez Merino.** 75 urte. 2018-VII-16.
- **Raul Sarasketa Gonzalez.** 81 urte. 2018-VII-18.
- **Alberto Guenaga Irusta.** 76 urte. 2018-VII-19.
- **Jesusa Bastida Arriaran.** 92 urte. 2018-VII-24.
- **Maria Zulaika Irureta.** 80 urte. 2018-VII-25.
- **Matias Colino Colino.** 84 urte. 2018-VII-26.
- **Antonia Beitia Larena.** 70 urte. 2018-VII-26.
- **Pedro Osoro Elkoroiribe.** 87 urte. 2018-VII-28.
- **Concha Zabaleta Madariaga.** 99 urte. 2018-VII-29.
- **Angeles Arroyo Gomez.** 78 urte. 2018-VII-30.
- **Manuel Rodriguez Fernandez.** 90 urte. 2018-VII-31.
- **Iratxe Simal Barrutia.** 44 urte. 2018-VIII-1.
- **Antonia Kaltzakorta Sololuze.** 87 urte. 2018-VIII-2.
- **Mertxe Osoro Larruskain.** 75 urte. 2018-VIII-5.
- **Marciana Rodriguez Diez.** 89 urte. 2018-VIII-7.
- **Arrate Zamakola Besoitaogoena.** 85 urte. 2018-VIII-7.
- **Luisa Lizarralde Uribetxeberria.** 88 urte. 2018-VIII-7.
- **Mª de los Angeles Lopez de Abetxuko.** 86 urte. 2018-VIII-7.
- **Jose Francisco Gil Baglietto.** 60 urte. 2018-VIII-7.
- **Belen Ortiz de Zarate Iturbe.** 62 urte. 2018-VIII-8.
- **Luciano Conchas Marcos.** 81 urte. 2018-VIII-10.
- **Martin Jesus Ugarteburu Agirrebengoa.** 66 urte. 2018-VIII-11.
- **Rosita Arrese Amuriza.** 88 urte. 2018-VIII-12.
- **Margarita Unamunzaga Unamunzaga.** 86 urte. 2018-VIII-12.
- **Irene Martitegi Iraola.** 94 urte. 2018-VIII-12.
- **Maria Cepero Martinez.** 95 urte. 2018-VIII-15.
- **Remi Gabilondo Arriaga.** 58 urte. 2018-VIII-15.
- **Carmen Garate Altuna.** 86 urte. 2018-VIII-15.
- **Esther Gaztelurrutia Garro.** 91 urte. 2018-VIII-16.
- **Dionisia Castañeda Alvarez.** 86 urte. 2018-VIII-16.
- **Dominike Ajuria Gorostiaga.** 93 urte. 2018-VIII-16.
- **Evangelina Sampedro Cid.** 88 urte. 2018-VIII-19.
- **Florentina Martinez de Albeniz Ruiz.** 80 urte. 2018-VIII-20.
- **Itziar Arregi Agirre.** 77 urte. 2018-VIII-21.
- **Carmelo Hurtado Delgado.** 75 urte. 2018-VIII-23.
- **Manuel Azkue Albizu.** 85 urte. 2018-VIII-23.
- **Iñaxio Larrañaga Azkune.** 64 urte. 2018-VIII-23.
- **Jose Miguel Muñoz Rueda.** 71 urte. 2018-VIII-24.
- **Isabel Garcia Sanz.** 76 urte. 2018-VIII-24.
- **Magdalena Garcia Castrillo.** 96 urte. 2018-VIII-24.
- **Carmen Ormaetxea Aitorrasagasti.** 90 urte. 2018-VIII-27.
- **Julia Aretxabaleta Urzelai.** 90 urte. 2018-VIII-30.
- **Rosario Arrizabalaga Bartra.** 76 urte. 2018-VIII-31.
- **Miren Zurikarai Atxa-Orbea.** 83 urte. 2018-IX-1.
- **Mª Salud Castaño Garcia.** 70 urte. 2018-IX-1.
- **Angelica Aldazabal Fariñas.** 43 urte. 2018-IX-1.
- **Luis Escolar Escolar.** 91 urte. 2018-IX-1.
- **Santiago Blanco Martinez.** 83 urte. 2018-IX-3.
- **Aitor Andres Unanue Peñagarikano.** 65 urte. 2018-IX-4.

jaiotakoak

- **Paule Sanchez Diez.** 2018-VII-8.
- **Yasin Karmaqui El Chabali.** 2018-VII-11.
- **Ager Lafuente Oleaga.** 2018-VII-14.
- **Eneko Aranzabal Castro.** 2018-VII-15.
- **Carla Garcia Calvo.** 2018-VII-19.
- **Jon Barrenetxe Sodupe.** 2018-VII-19.
- **Maite Aranzeta Gorospe.** 2018-VII-20.
- **Izar Aranzeta Gorospe.** 2018-VII-20.
- **Paul Arriola Iturbe.** 2018-VII-20.
- **Leire Serrano Valladares.** 2018-VII-21.
- **Aner Iñarrairaegi Etxebarria.** 2018-VII-22.
- **Ehtesham Muhammad.** 2018-VII-22.
- **Unai Caño Leibar.** 2018-VII-23.
- **Ioritz Palma Lopes.** 2018-VII-25.
- **Samar Luna Bensaid Joya.** 2018-VII-25.
- **Mikel Bastida Alfaye.** 2018-VII-26.
- **Minetu Ali Hamad.** 2018-VII-26.
- **Ana Mª Geraldino Cano.** 2018-VII-27.
- **Maren Peña Hernandez.** 2018-VII-28.
- **Jule Meabebasterretxea Idigoras.** 2018-VII-31.
- **Ane Torano Deza.** 2018-VIII-1.
- **Martin Huerta Zubizarreta.** 2018-VIII-2.
- **Claudia Aranzabal Conde.** 2018-VIII-4.
- **Danel Garcia Arias.** 2018-VIII-5.
- **Danel Laskurain Rasero.** 2018-VIII-6.
- **Ehmared Ahmed Salem Iabdels.** 2018-VIII-6.
- **Manal Ben Haddou Ait Yassine.** 2018-VIII-7.
- **Anas Bousbaa.** 2018-VIII-8.
- **Israe Aghbalou.** 2018-VIII-9.
- **Xabat Azpeleta Perez.** 2018-VIII-10.

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea.....	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.....	943 46 46 22
Gurutze Gorria.....	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	902 54 32 10
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa.....	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen.....	650 26 59 63

farmaziak

- Eguena 6**
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
- Barixakua 7**
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Zapatua 8**
EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)
- Domeka 9**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- Astehena 10**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- Martitzena 11**
EGUNEZ **Zulueta** (San Agustin, 5)
- Eguaztena 12**
EGUNEZ **Mandiola** (San Agustin, 3)
- Eguena 13**
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- Barixakua 14**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI - 2017AN-
Mandiola (S. Agustin, 3)

- **Ibon Hernandez Asperilla.** 2018-VIII-10.
- **Kloe Retege Bustinduy.** 2018-VIII-11.
- **Ousmane Thiare Ndong.** 2018-VIII-12.
- **Rayan El Arakabi.** 2018-VIII-16.
- **Harou Marouan.** 2018-VIII-19.
- **Hugo Caño Escribano.** 2018-VIII-19.
- **Ritaje Bounou.** 2018-VIII-22.
- **Mikel Gil Telleria.** 2018-VIII-23.
- **Markel Zubiate Rodriguez.** 2018-VIII-24.
- **Danel Josue Herrera.** 2018-VIII-25.
- **Nora Ubera Urteaga.** 2018-VIII-26.
- **Ian Markina Dinis.** 2018-VIII-27.
- **Izar Sanchez Azkunaga.** 2018-VIII-27.
- **Paulette Nahiara Andrade Galvis.** 2018-VIII-31



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, UDANE, astelehenian 7 urte egingo dozuz-eta. Musu haundi bat, batez be Maitaneren partez.



Zorionak, MAREN, abuztuaren 29xan 7 urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat tio Iñigo eta ama-ma Arantxaren partez.



Zorionak, DANEL, zure 18. urtebetetzian. Hamazortzi musu potolo etxekuen eta, batez be, Zaloaren partez.



Zorionak, HAIZEA Guruzeta Reyes, abuztuaren 20xan 5 urte egin zenduaz-eta. Familixaren partez.



Zorionak, ALAITZ, abuztuaren 14an 6 urte bete zenduaz-eta. Musu bat familixaren eta, batez be, zure neba Gaizkaren partez.



Zorionak, HAIZEA, zure lehelengoko urtebetetzian! Patxo mordua familixa guztiaren eta, batez be, Julenen partez.



Zorionak, IXONE Ortiz de Zárate Torre, bixar 6 urte egingo dozuz-eta. Aititxa-amamen partez.



Zorionak, MARKEL, uztailaren 24an 4 urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, OSKITZ, atzo urtetxua bete zenduaz-eta. Aittitta-amama, gurasuak eta tia Lauriren partez.



Zorionak, MONICA, abuztuaren 26xan urtiak bete zenduaz-eta. Musu haundi bat lagun eta familixa guztiaren partez.



Zorionak, LEIRE, zapatuan 22 urte beteko dozuz-eta. Jarraitu zaren modukua izaten. Etxekuen partez.




Zorionak, IRATI, abuztuaren 30ian 8 urte bete zenduaz-eta. Besarkada berua familixa guztiaren partez. Segi holan!



Zorionak eta patxo haundi bana, IZASKUN eta XABIER, abuztuaren 13an urrezko ezteiak bete zenduaz-eta. Etxekuen eta, batez be, Danel eta Zaloaren partez.



Zorionak, LUCIA eta ANE! Gure printzesak oportretan 2 eta 4 urtetxo bete zeben-eta. Patxo potoloooo! Batez be Iñaki, Luka eta Mikelen partez.



Zorionak, MANEX (abuztuaren 8xan 5 urte) eta amatxo SUSANA, urtiak bete dozuez-eta. Musu haundi bana.

			9					
		6	8	3	2		1	7
				7		6	8	
		7		1	8		3	
1		5				2		8
	2		4	5		7		
	7	1		4				
4	9		1	8	5	3		
					9			

SUDOKUA

AURREKOAREN
EMAITZA

5	9	2	8	4	7	6	1	3
8	4	3	1	5	6	2	9	7
6	1	7	3	9	2	8	4	5
4	2	5	7	3	8	1	6	9
1	6	8	9	2	5	7	3	4
7	3	9	6	1	4	5	2	8
9	5	1	2	7	3	4	8	6
3	8	4	5	6	1	9	7	2
2	7	6	4	8	9	3	5	1

i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. Etxebizitza

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 680-526228.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 3 logelarekin. Tel. 617-674927.
- Buhardila alokatzen da Txontan. 5. pisua, igogailu barik. Prezio interesgarria. Tel. 626-144098.
- Pisua alokagai Mutrikun. 3 logela, 2 komun eta terraza. Igogailua. Erabat ekipatua. Tel. 645-728317.
- Eibarko bikote gazteak pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Tel. 618-854121.
- Logela alokagai. Merkea eta erroldatze-ko aukerarekin. Tel. 632-271530.
- Pisua alokagai Ermuko erdialdean. Sukaldea, 2 logela, egongela, komuna eta despentsa. Tel. 669-209183.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Lokal komertziala alokagai Birjiñape 1ean (Sokoa ondoan). 33 m². 250 euro. Tel. 688-678934.
- Garaje itxia alokagai Arrate Bide 17an. Tel. 639-491422.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko: nagusiak zaindu, etxeko lanak egin... Tel. 632-875808.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko: nagusiak zaindu, etxeko lanak egin... Tel. 617-810065.
- Emakumea eskaintzen da interna lan egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 631-405748.
- Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Tel. 612-518050.
- Emakumea eskaintzen da orduka lan egiteko. Erreferentziak. Tel. 688-842791.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta garbiketarako. Tel. 671-814324.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta garbiketarako. Tel. 688-959575.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko asteburuetan ospitalean gauetz. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 632-733573.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 600-212516.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Esperientzia. Tel. 602-844282.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Erreferentziak. Tel. 651-508694.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta hoteletan jarduteko. Tel. 626-197217.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 633-101852.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 631-269177.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 603-639267.
- Emakume euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko arratsaldez. Tel. 687-114707.
- Emakume euskalduna eskaintzen da astegun arratsaldetan garbiketara eta zaintza lanak egiteko. Orduka. Tel. 665-733162.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-200936.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 685-036902.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-891709.
- Emakumea eskaintzen da gozogintzan lan egiteko: pastelak, bizkotxoak... jai eta ospakizunetarako. Tel. 602-307756.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. Tel. 675-823403.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-532426.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 627-230784.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 9 urteko esperientzia. Tel. 631-771822.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-896116.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 649-025614.
- Emakume arduratsua eskaintzen da lan egiteko. Interna. Tel. 631-424584.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 632-808708.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 628-929146.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 612-245623.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 602-837079.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 688-413892.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 643-398596.
- Eibarren bizi den gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 631-371332.

4.2. Langile bila

- Pertsona bat behar da okindegi batean lan egiteko. Euskera garrantzitsua da. Idatzi: tutulookindegia@gmail.com
- Sukalde-laguntzailea behar da. Esperientziarekin. Tel. 665-308025.
- Neska behar da umeak eskolatik jasotzeko. Tel. 653-701630.
- Sukalde-laguntzailea eta kamarera/0 behar dira Eibarko taberna batean. Tel. 639-792203.
- Emakumea behar da adineko pertsona zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Egunean ordu batzuk. Berehala hasteko. Bidali erreferentziak: maunibi@yahoo.com
- Neska/emakume euskalduna behar da irailetik aurrera arratsaldez umea zaintzeko eta etxeko lanetarako. Deitu iluntzean. Tel. 676-105492.
- Banatzaileak behar dira ...eta kitto! aste-karia banatzeko. Tel. 943-200918 eta 943-206776. banaketa.etakitto@gmail.com

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

- Irakaslea behar da 5 urteko umeari etxean ingelesa erakusteko. Tel. 661-700439.

5.2. Eskaintzak

- Matematika, Kimika eta Fisika klase partikularrak ematen ditut maila guztietan. 4 laguneko taldeak gehienez. Urteetako esperientzia. Tel. 615-705945.
- LHko irakasleak (ingelesezko C1 mailarekin) klase partikularrak emango lituzke. Tel. 688-659861.
- DBH eta Batxilergorako klase partikularrak ematen ditut. Goiz eta arratsaldez. Tel. 685-739709.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.2. Eman

- Katakumeak oparitzen dira. Tel. 643-681509.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Erlojuar aurkitu nuen uztailean Barakaldo kale inguruan. Tel. 659-711802.

6.4. Bestelakoak

- Aulki gurpilduna behar dugu. Gehienez 60 zentimetroko zabalera. Tel. 616-909630.

NEKAZARITZA TRADIZIONALA ETA BABESTUA

ZELETA BARAZKIAK



*Ekoizpen prozesuan
energia berriztagarriak
erabiltzen ditugu*



- Landareen produkzioa
- Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa
- Banaketa

• **Ortutik mahaira: Bertako produktuetan erantzunik gertukoena**

Ekoizpenaren %100 hazte-zikloa zainduz eta tratamendu kimikoen erabilera saihestuz lortzen dugu

Orain Eibarko
BM-n ere bagaude

ZELETA BASERRIA • San Migel auzoa / ELGOIBAR • Tfnoa. **609 35 76 19** • www.zeletabaserria.com

Irailaren 27^{ra} arte **MATRIKULA ZABALIK**

ASPALDIKO!

EUSKARA

BERRIRO

ZURE

BIZITZAN.

18/19 Matrikula epea zabalik
Plazo de matriculación abierto

UDAL
EUSKALTEGIAK



2018-19 ikasturtea

**- MAILA GUZTIETAKO
euskara ikastaroak**

16 urtetik
gorakoentzat

1. MAILA		2. MAILA	3. MAILA	4. MAILA	
A1	A2	B1	B2	C1	C2
OINARRIZKO ERABILTZAILEA		ERABILTZAILE AURRERATUA		ERABILTZAILE ADITUA	

- Autoikaskuntza: **Bakarkako lana, tutoretzak eta mintzasaioak** (BOGA programa)
- Etorkinentzako harrera-ikastaroak (**AISA**)
- Azterketa prestakuntza
- **HABEko** titulu ofizialak

ordutegi zabala

**TARIFA BEREZIAK: %20, %50 eta %75eko deskontua
KONTSULTATU**

Eibarko Udala Euskaltegia



Bista Eder, 10 -PORTALEA-
euskaltegia@eibar.eus

Tfnoa: 943 70 09 12

Faxa: 943 82 00 89



Eibarko Hizkuntza Eskola

MATRIKULAZIO
OFIZIALA:

Irailaren
1etik **19**ra



Edozein adin egokia delako hizkuntzak ikasteko
DEUTSCH ENGLISH EUSKARA FRANÇAIS
gazte eta jubilatuak ere badaukazue lekua gure eskolan

IKASTARO ERDIPRESENTZIALAK



alemanez
eta ingelesez



– eskolan eta on line (Moodle plataforma) –

Arrasaten eta Azkoitian

**GELA
DESPLAZATUAK**

ere badauzkagu



***14 urtetik gora:**
*Frantsesa
eta Alemana*
(eskolan Ingelesa
atzerriko lehen
hizkuntza bada).
16tik gora:
Edozein hizkuntza.

**14 urtetik
gora***

Matrikula on-line egin beharko da ondorengo web orrian:

www.eoieibarheo.hezkuntza.net

www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/hizkuntza-eskola-ofizialak

Ikasturte osoaren prezioa: **72,36 euro**

